

## Zeanuriko Erroten XVIII. Ibilaldia hilaren 11n

Joko Alai alkarteak antolatuta, aurtien hamazortzigarrenez egingo da Zeanuriko antxinako errota hidraulikoak bisitetako familian egiteko ibilaldi aproposa. Guztira, hamazortzi errota edo honeen errastuak ezetuten dira herrian eta ibilbide nagusiak dituan hamalau kilometroetan, zazpi erroten albotik pasau ahalko dira bertaratzen diran ibiltariak. Gainera, hirutan (Errotabarri, Ibargutxi eta Olabarri) sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe. **16. orrialdea**



## Itziar Ituño: "Artea eraldatzailea izan behar da, aldaketaren motorra"

Itziar Ituño Arteako Herriko Bentan egon da aprilean, baina ez telesailen bat grabetan, INGOT taldeagaz kontzertua eskaintzen baino.

**I**zan be, basauritarra ez da aktorea bakarrik, 30 urte daroaz-ta musikea egiten. Kontzertuaren aurretik, bera alkarrizketatutako aukerea izan eban BEGITUk eta bere ibilbide musikal zein telebistakoaz, famaren zamaz, mundua eraldatutako artea erabilteaz, euskereaz eta gehiagoz berba egin deusku gaur euskal aktore ezagunenetarikoa danak.

Argi itxi dau, artistek "abangoardiaren papera hartu eta aldaketarako bere aletxo" ipini behar dabela

sorkuntza prozesuan eta hain zuzen be, musikeak horretarako askatasuna emon deutso Ituñori. Abesti aldarrikatzaileak eta bizkaieraz kantautu, INGOT taldeak domeka euritsua festa bat bihurtu eban Artean. Arratian lehenengo aldia zan INGOT taldearentzako eta Ituño bera, gogotsu etorren Arteara: "Alkartasun kontzertu txikia izango da, intimoa, jentea hurbil egotea beti da polita", inoan Ituñok taula gainera igon aurretik. **9. eta 10. orrialdeak**



### IGORRE

## Atzeratu egin da Kiñu Gaztetxearen epaiketea

Apirilaren 23ko epaiketan Sabadell Bankuak gazteak Igorreko gaztetxetik botatea eskatu eban arren, asanbladeak lortu dau gaztetxea gitxienez bost hile gehiago zabalik mantenidutea. Hurrengo epaiketea urri lehenengoaren 15erako deitu dau epaileak. **6. orrialdea**



### ARRATIA/ZEBERIO

## Arantxe, Karpo, Santa Kurtze eta San Isidro jaietan

Maiatzaren lehenengo hamabostaldian jai ugari daukaguz. Hilaren 2tik 3ra Areatzako Karpoko jaiak ospatuten dira, hilaren 2tik 4ra Zeberioko Santa Kurtze jaiak eta hilaren 3an, jaia egingo da Lemoako Arantxe auzoan. Zea-nurin barriz, sanisidroak maiatzaren 15ean hasiko dira. **6. eta 7. orrialdeak**



### LEMOA

## Memoria eta Kultura Astea Lemoan

Maiatzaren 5etik 11ra, egunean ekintza bana egingo da Memoria Historikoa landu eta kulturaz gozatzeko helburuagaz: *Momotox-roak: Kaos baten istorioa* dokumentalaren eta XXII. Laburbirako filmen proiektinoak, *Odisea 1937* erakusketearen inaugurazioa, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua, poteo magikoa, Belaunaldien Arteko Eguna eta *orienting* proba egingo dira, hurrengo hurrengo. Memoria Historikoaren gaineko ariketa nagusia, hain zuzen be, hilaren 7an egingo dan *Odisea 1937* Gerra Zibileko argazkien erakusketea eta honen inaugurazioan Aitor Miñambres eta Mauro Saraviak eskainiko daben berbaldea da. **7. orrialdea**

# Literatura txokoa

## SINCRODESTINO

Deepak Chopraren jarraitzaile handia naz. Asko ikasi dot bere eskutik: meditazio, medikuntza holistiko, yogaren filosofia zein energia kontuak. Danetik asko dakien jente ugari ez da egongo munduan, baina egon badagoz. Chopra horreetako bat da.

Bere liburu asko ezetuten dodaz, baina pilo bat daukadaz irakurteko oindino. Izenburu hau oin dala aste pare bat agertu jatan lehenengoz mustur aurean libu-rutegi eder batean eta segiduan jakin neban ezin nebala "irakur-teko liburuen" zerrendan itxi. Eta holan izan zan. Egun horretan bertan hasi nintzan irakurten. Unibersoaren seinale moduan hartu neban nire beharizan hori. Oin badakit holan izan zala.

*Sincrodestino*. Izenak berak dino.

Gehiago luzatu barik esango deusut benetan gomendatuten dodala obra honen irakurketea, beti be prest bazagoz zure bi-zitzako esperientzia beste maila batera eroateko. Ez bazagoz prest zure ametsak egi bihurtuteko edo ez badozu uste zure ame-tsak bizitea merezi dozunik, ez da liburu hau irakurteko momentua. Zuk ebatzi beharko dozu.

Goazen barruak mamituten. Irakurtera animetan bazara baina fisika kuantikoan aditua ez baza-ra, gomendio bat: ez itxi liburu lehenengo kapituluak. Materia, energia, ugin eta atomo. Segidu aurrera, irakurle, ez zara damu-tuko-ta.

Izan be, behin liburu amaituta daukadala, esango deusut Cho-prak bidai ederra eginarazoten deuskula, fisika kuantikotik arke-tipoetara (Atenea, Zeus, Ulises, Saraswati zein Krishna). Eta behin hori landuta, ariketa proposame-na. Meditazioa, mantra eta sutra.

Bidaia benetan kurioa dala egongo zara pentsetan segurue-nik. Holan da, bai. Baina uniberso bera da kurioa eta liburu honetan ikasiko dogun gauzarik handiena, unibersoa gu geu gara-la da. Danak gara bat, danok ga-toz leku beretik, ez dago banake-tarik. Banaketa eta personaia, bildurak eta haserreak, egoaren esku dagoz. Eta behin ego hori alde batera itxita (ikasketa gatx bezain ederra) milagroak biziteko

prest gagoz. Zu, zure auzokoa, ni eta danok.

Ostean, pentsau momentu batez: nondik jaio izan dira ba arrakastarik handiena euki daben personak? Danok gara esen-tziaz bardinak. Banaketa guztiak, konparaketa guztiak gure buruak sortutakoak dira.

Aurrera egin dagigun ba kon-zientzia mailan eta animau zaitez zure ametssetako bizitza errealida-de egiten.



**Deepak Chopra**  
*Sincrodestino*  
**Debolsillo argitaletxea, 2016**  
**232 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112  
**Guardiako farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Aprilaren 28tik maiatzaren 4ra**  
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154  
**22:00etatik 09:00etara**  
Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. (26-2)  
**Maitzaren 5etik 11ra**  
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937  
**22:00etatik 09:00etara**  
Melero. Amorebieta-Etxano. (3-9)  
**Maitzaren 12tik 18ra**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057  
**22:00etatik 09:00etara**  
Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (10-16)  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.  
**Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara**  
Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 600 74 63  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13  
**Dima:** 94 680 19 74  
**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 01 85  
**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Arratiako Udalen Mankomunitatea** 94 631 17 17 / *mankomunitatea.arratia@bizkaia.org*  
**Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea**  
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*  
**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79  
**IKE** 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*  
**Euskotren** 94 433 33 33 / *euskotren.eus*  
**Areatzako Notariotza** 94 673 92 26  
**Errota Fundazioa**  
688 854 543 / *info@erota.eus*  
**Arratiako Musika Eskola**  
94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

**Bizkaibus 94 612 55 55**  
**3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.  
**3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.  
**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.  
**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.  
**3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.  
**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.  
**3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
**Ubideetik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.  
**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.  
**3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.  
**3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao**  
**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00; 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20. \*Basauriraino bakarrik.  
**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20. \*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.  
**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.  
**Ugaotik Artea.** Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.  
**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.  
**Ugaotik Igorrerako.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.  
**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.  
**Arrigorriagatik Zeberiora.** Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.  
**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

### Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerironak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea. Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:  
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXVII).  
Kale berbakunea sustatu guran

KARLISTADAK (IV)

-Orduan gudu karlistea galtzeak zer suposatu **joan** euskaldunontzat?  
-Ba esate baterako lehen burdin meatzen ustiapena herriarena **zoan** eta jentear apurka-apurka eta behar ahala meatzetatik hartzean **joan** burdina.  
-Liberalak poderean parau eta gero ingelesei emon **yotziean** Bizkaiko burdin meatzen kontrola eta dana xahutu **yeudien** eta Ingalaterrara merke bialdu, eta hemengo aberastasuna ostu.

ERETXIA

Euskaraldia

UNESCOK dino gaur egun munduan berba egiten diran hizkuntzen erdiak mende amaierarako desagertuta egongo dirala, eta euskerea arrisku egoeran dagozanen zerrendan kokatzen dau.

Globalizazinoak eragindako korronte homogeneizatzailea hizkuntza gitxitu eta txikien kontrako norabidean dator, eta bizimoduaren digitalizazinoaren eraginez, geroz eta modu indartsuagoan kolpatzen dabil hegemonikoak ez diran hizkuntzak, kulturak eta herriak; gureak, besteak beste.

Gurera etorrita, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako zati handiengan euskerea ofiziala ez izateak bizibarritzerako ahalegina trabatzen dau. Hori guztia gitxi balitz, gainontzeko eremuetan azken aldian bizi dogun oldarraldi judizialak euskerearen egoerea normalizetako nahiak lege babes ahula daukala erakusten deusku.

Euskerearen ezagutzea, orokorrean, goranzko bidean badago be, erabileran goia jo dogun sensazinoa dogu, eta eremu euskaldunenetan galerak gertatzen dabiz, Arratian, esaterako.

Testuinguru zaharbarritu horretan heldu jaku Euskaraldiaren laugarren edizinoa baliatzeko aukera/proposamena. Euskaraldia euskerearen erabileran eragiteko daukagun tresna-bide-modu masiboena da, eta, gainera, eraginkorra dala frogatu dabe egindako ikerketek. Ez da kanpaina edo festa bat, ariketa soziala da, erabileran erabileratik eragiten dauan praktikaldi konziente erraldoia. Beharrezkoa da, baina ez da nahikoa.

Euskaraldiari esker euskaldunon eguneroko hizkuntza ohituretan jauzia ekar daikien portaerak zabaltzen dabiz, apurka-apurka, eta portaera horreek arau sozial bihurtzea dogu helburu, hau da, ia pentsau barik egiten dogun hori izatea.

- 1- Hasikerako berbea beti euskeraz, ezagun zein ezezagunakaz.
- 2- Besteak ulertzen badau,



TAUPA  
Euskaltzaleen mugimendua

adostu daigun egingo doguna, eta ekin deiogun.

Gogoeta partekatuakaz batera euskaldunok eta euskereak ekimen masibo ilusinogarriak be behar doguz, Euskal Herriaren luze-zabalean gauzatzen diranak eta gu protagonista eta, aldi berean, helburu gaituenak: Korrika, euskerearen aldeko festak... Euskaraldia. Herri gogoia indartzeko eta erakusteko ekimenak dira horreek, eta, Euskaraldiaren kasuan, hizkuntzearen erabilerea erdigunean kokatzekoa, praktikatzekoa. Baina horreekaz batera euskereak mobimentua behar dau, euskeraz biziteko aukerak sortu eta aukera horreek baliatzeko gogoia elikatuko dauan bultzada herritar indartsua.

Horregaitik ez dogu gura Euskaraldia, bakarrik, egun jakinetara mugatzen dan ariketa soziala izatea. Euskerearen erabilerea aktibauko dauan mobimentua sortu gura dogu, euskaldun eta euskaltzaleak mobiduarazoko dituana. Euskal Herri osoan euskerearen erabilerea sustatzeko prest dagoan jentea batu, horretarako trebatu, antolatu eta euskerea UNESCOren zerrenda horretatik kenduko dauan kaleko euskalgintza aktibau gura dogu.

Bada, Euskaraldia izeneko ariketa sozial honek bide horretan kokatzen gaitu, euskerearen bizibarritzearen bidean. Milaka eta milaka euskaldun, oso ondo edo ez hain ondo berba eginaz, batera, Euskal Herri osoan, alkar eraginez eta lagunduz, *elkar mugituz egingo dugu*.

Beraz, lagunok, ze portaera hartuko dozue Belarriprest edo Ahobizi? Ebatzi dozue? Emon dozue izena? *euskaraldia.eus* webgunean egin ahal dozue.

Arratiako herri guztietan bada go talde edo batzorde bana informazino zabaltzeaz, izen-emotea sustatzeaz eta txapen banaketaz arduratzen dana. Batzorde horreetan parte hartu ahal dozue.

Emon izena parte hartzeako, eta maiatzaren 15etik 25era, txapa jantzita, gozatu euskerea eta Euskaraldia.

*Elkar mugituz egingo dugu.*



LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

"Haizea, Haizea se llamará"

Ez jatzue inoz pasau, zer edo zer mingotsa usaindu -izan pasillo bat, edo larrosa-ur bat- eta akordura etortea hainbat urte lehenago euki zenduan mutil-laguna, edo ha bidaia ha Maltara?

Eta ez jatzue inoz pasau, albahakeagaz edo galipotagaz edo euriaren osteko basoko ideakaz?

Niri musikeagaz pasetan jata sarri: Korn entzun eta akordetan naz Ibon Izari gustetan jakola Korn, eta Pedrori UB40, Urko Santxezeri Green Day, Aimar Gorosperi Su ta Gar, Ainare Ipiñari Koiuntura, Amaia Zuberori Kiko Veneno. Eta Argazkarin zinta birjina bat erosi neban behin, badinotsuet, Roxette grabetako Leire Ziarrustaren beste zinta grabau batetik: grabautau daukat memorian, baina memoria hauskorra da, Aritz Zubiateri *Nos vimos en Berlin* entzuten neuntsan baina justu

oin ulertu dot letrearen esangurea, Gazako azken ospitalea bonbardeau dabenean, atera kontuak, hogeita hamar urte pasau dira eta oindino ezingo neunke osotu guztiz anaiaren taldeen zerrendea: Tool, Come, Chris Brokaw, Vicente Amigo, Iniezione, Derek and the Dominos, The Birthday Party, Luna, Joanna Newsom, Mice, Animal Collective, PJ Harvey, Gerardo Núñez, Inoren Ero Ni, Massive Attack, John Coltraine, Joseba Tapia...

Musikeak hori dauka: Anjeline-senera eroaten nau, edo Hegazkinara, edo lurralde barrietara.

Eta beste asko jatortaz: Sunny Day Real State, Screaming Trees, Tricky, Thaleia Zedek, Star Rover, Thurston Moore, Robert Wyatt, Terence Trent D'Arby, Ainara Legardon, Voodoo Muzak.

Gurtubaik eta Lamikizek eta konpainiak VHSan grabetan ebezan gabon zaharretako berbak, jentea Areetatik etorten zan beren-beregi Igorrera Pearl Jam eta Red Hot entzutera, eta zapatuetan Laudioko Mecara joaten ginan eta han be Smashing Pumpkins zantzoka, edo Eric Clapton esanez, geldiro-geldiro: *Is it love, or is it me?* Eta beste mila giza zarata klasiko, oindino ez doguzanak entzun be egin.

ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO

Itzina Orozkotik



BEGI TXINDORRA

Zero energia, zero sorpresa.

Sistema elektrikoaren erabateko kolapsotik egun eta orduak aurrera joan ahala, baztertuten doa zibererasoaren hipotesia, eta indarra hartu dau ardurea enpresa energetikoek daukienaren usteak. Ingeniari eta energiaren munduko adituek -ez enpresariiek- uste dabe arazoa enpresek, errentagarritasuna handitze aldera, ez dabela nahikoa inbertiduten sistemea egonkortzeko tensino-egonkortzaileetan. Hau beharrezkoa ei da oin, produkzino fotovoltaiiko eta eolikoan gatzagoa dalako sarearen eskaera aldaketak jarraitutea. Eta azpimarratuten dabe, ez dala energia barritzagarrien arazoa, sistemearen egiturearena baino.

Halanda be, Audientzia Nazionalak ikerketea zabaldu dau, abisauz, gertatutakoa "sabotaje informatikoa" izango balitz, terrorismo delitua izango litzatekeala. Argindarrarenganako menpekotasun handia daukagu eta honen gainera "konfiantza" enpresa pribaduetan ipini dogula ikusita, ez da nahikoa sare behar dan moduan ez jagotea, hau dirua irabazteko "sabotaje" moduan ulertzeko?





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**LORAZAINTZA**

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com



**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

|                       |                      |
|-----------------------|----------------------|
| Fernando 699 29 67 17 | Arkaitz 677 46 40 91 |
| Eduardo 647 72 96 24  | Golder 666 58 20 06  |

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com





Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologoa

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bidaia  
T. 94 631 50 39  
Itzazpita Zerbaita: 900  
R.P.S. 31/06

ARRATIA

# Menpekotasuna daukien personen zaintzainleakaz lanean jarraituko dau Mankomunitateak 2025ean

Maiatza eta bagilean zehar *Dementia ulertuz, hobeto zaintzeko* ikastaroa eskainiko da eta udagoiengan, autozainketa berbaldi zikloari jarraipena emongo jako, Laguntza Psikologikorako Taldea egituratzeaz gainera.

Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) menpekotasuna daukien personen zaintzaile ez profesionalei autozainketarako erremintak eskaintzeko berbaldi ziklo bat eta ikastaro bat antolatu ebazan pasau dan urtean. AUMk, "menpekotasuna daukan persona bat zaintzeak bere inguru familiarrean sortzean dauzan ondorioakaz sensibilizaut", lanketari jarraipena emotea ebatzi dau, "zainketen esparruko funtsezko elementu" modura. Holan, maiatza eta bagila bitartean, sei saioko *Dementia ulertuz, hobeto zaintzeko* ikastaroa eskainiko da. AUMetik BEGITUri aurreratu deusienez, lanketeak jarraipena izango dau udagoiengan, pasau dan urrietan egin zan zaintzaileen autozainketea bultzatuteko berbaldi zikloaren jarraipenagaz. Gainera, Arratia mailako Laguntza Psikologikorako Taldea sortuko dala aurreratu dabe.

*Dementia ulertuz, hobeto zaintzeko* ikastaroa maiatzaren 6tik bagilaren 10era, martitzenero 17:00etatik 18:30era, eskainiko

da Igorreko Kultur Etxean sei saiotan. Oin arte egindako lanketetan zaintzailea bera izan da fokua baina oingoan, menpekotasun egoeran dagoan personearen egoera ulertu eta hau zainduteko tresnak emongo ditue Esku-hartze Sozialerako Suspergintza Elkarteko kideek. Ikastaroak, "zaintza familiarrean egonezin eta ardura gehien eragiten dauan patologiar" ekingo deutso, demenziari hain zuzen be. Beraz, demenzia zer dan jakiteko informazioa emon eta honek eragiten dituan jokabide-arazo ohikoenak eta horreen aurrean jarduteko moduak aztertuko dira lehenengo lau saioetan. Atzen bietan barriz, autozainketea izango da langaia.

Izen-emotea maiatzaren 2ra arte egin daiteke 94 631 17 17 telefonan eta izena emoten daben personon arabera egingo da ikastaroa euskeraz edo gazteleraz. Gixienez zortzi eta gehienez hamabost personako taldea osotuko da eta AUMetik zehaztu dabenez, demenzia edo gaixotasun neurodegeneratiboak dabazan adinekoak zaintzeaz arduratuten diranentzako da deialdia.

Taldea osotuterako orduan, pasau dan urteko parte-hartzaileek izango dabe lehentasuna.

Martitzenetan, 17:00etatik 18:30era Igorreko Kultur Etxean

- Maiatzak 6: Dementia ulertzen.
- Maiatzak 13: Dementzian egoera zailai aurre egitea.
- Maiatzak 20: Zaintzen dodan personeagaz eguneroko jarduerak antolatuz.
- Maiatzak 27: Menpekotasuna daukan personeari zuzendutako baliabideak.
- Bagilak 3: Nire emozinoen kudeaketea.
- Bagilak 10: Norbere burua zaintzeko estrategiak.



IGORRE/ZEBERIO

# Aitor Esteban eta Maitane Ipiñazar EAJren Euzkadi Buru Batzarrean

Erredakzinoa

Martiaren 30ean ospatu eban Euzko Alderdi Jeltzaleak Donostiako Atano III. Pelotalekuan IX. Batzar Nagusia, alderdiaren norabidea eta aginte organuak barritzuteko helburuagaz. Bertan, Aberri Batzarra osotuten daben ehun militanteek aho batez ebatzi eben EBBren presidente barria Aitor Esteban izango zala, datozen lau urteetarako. Holan, Zeberioako Andoni Ortuazaren lekukoa hartu dau EAJ-PNVren buruzagitzan. Oin arte Espainiako Diputaduen Kongresuko diputadua izan dana bilbotarra bada be, bizitza erdia baino gehiago Zeberion daroa Estebanek.

EBBko burua izentau ostean, EAJren organu nagusiko gainerako

kideak aukeratu ziran eta Esteban ez da izango eskualdeko kide bakarra. Izan be, Maitane Ipiñazar igorreztarra EBBren idazkaria izango da. Ibilbide politikoa Igorreko udaletxean, zinegotzi modura, hasi eban Ipiñazarrek. Oin, bere lanen artean egongo dira EBBk onartutako akordioen jarraipena egitea, alderdiaren Balantze eta

Urteko Jarduera Egitasmoa prestatzea, Aberri Estatutu barrien proposamena egitea, Sabin Etxeko Zerbitzu Orokorra gainbegiratzea, Giza Baliabideen diseinu eta koordinazioa, galdeketa prozesuen antolaketea eta Alderdikideen Erregistro Nazionala zein Sabino Arana Fundazioaganako eta Helduak taldeaganako koordinazioa.



Aitor Esteban eta Maitane Ipiñazar.

ARTEA

# Afrikako andra defendatzaileen topagunea izango da Basoa

Maiatzaren 7an Ekuatore Ginea, Kenia eta Kongoko alkarteetako andrek *Afrika: utopiak ehuntzen*. *Emakumeak eta disidentziak* berbaldia eskainiko dabe.



Erredakzinoa

Arteako Basoa Defendatzaileen Etxeak munduko txoko desbar-dinetatik datozen disidenteen topaleku izaten jarraituten dau eta oingoan, Afrikan jarduten daben andra defendatzaileen bilgunea izango da Bildosolako etxea. Izan be, hilaren 7an, eguaztena, *Afrika: utopiak ehuntzen*. *Emakumeak eta disidentziak* jardunaldia egingo da. Bertan, 18:00etatik 19:30era, Afrikako hiru alkarteren ordezkari euren lanaz egingo dabe berba Basoan. Andra eta LGTBIQA+ komunitateen eskubideen defentsatik hasita, etorkinen egoeratik pasauz, mobimentu sozialen egituraketara egingo da berba.

Topaketan parte hartuko daben alkarteak, Basoaz gainera, hiru izango dira. Batetik, Ekuatore Gineako Somos Parte Del Mundo kolektibo LGTBIQA+ eta feministako kide batek hartuko dau berbea. Kolektibo hau 2016tik dabil Ekuatore Ginean euren orientazio sexu-afektiboagaitik baztertutako personon errekonozimendu eta gizarte-inklusioren aldeko

burrukan. Euskal Herriko eta Kongoko andrak batzean dituan Famek Elkartea be badabil andra eta neskatoen eskubideen defentsan eta Marie Lucia Monsheneke taldekidea Basoan izango da. Famek alkarteak laguntza, prestakuntza eta eragin politikoaren bitartez, diskriminazioa eta genero-indarkeria desagerrarazoteko ahalegina egiten dau, "andra migratzaile bakoxtari ingurune barrian duintasunez eta segurtasunez aurrera egiteko laguntza-sareak" buztartuz. Inuka Kenya Ni Sisi barriz, Keniako mobimentu sozial bat da eta Salima Njoki Macharia izango da ordezkaria. 2009an sortu zan, 2007ko Hauteskunde Orokorren ostean bizi izan zan indarkeria zikloaren ondorioei aurre egiteko helburuagaz. Holan, herrialdean transizino sozial eta gobernantzazkoa garatu gura dabe, demografia eta ingurumena kontuan izanda. Muina "Ni Sisi!" eregitua da, keniarrak alkatu gura dituan identitate kolektibo bat eratu, herritarren eta liderren eraldaketea butzatu eta guztientzako "maisha" (bizitza) hobetzeko.

IGORRE

# Kiñu Gaztetxeak lortu dau bere kontrako epaiketea urri lehenengora atzeratzea

Erredakzinoa

Aprilaren 23an egin zan Duran-goko epaitegietan Kiñu Gazte-txeak erabilten dauan Igorreko Garbe auzoko eraikinaren etorki-zuna ebazteko epaiketea.

Gazteek aurreko jaubeagaz kontratu bat sinatu eben arren, ondasunen bahiketa baten ostean eraikina Sabadell Bankuarena da jaubetza legalez eta bankuak gazteak bertatik botatea eskatu-ten dau. Halanda be, Okupazio Bulegoko abogaduen estrategia aldaketa bateri esker, epaileak epaiketea atzeratutea ebatzi eban, urri lehenengoaren 15era arte.

Epaitegitik urten barri, gaztetxeko kide batek BEGIturi azaldu eutso-nez asmoa epaiketea atzeratutea zan eta holan lortu eben: "Atze-rapena positiboa da guretzako". Halanda be, epaileak jakinarazo eban Ertzaintza bialduko ebalaz gaz-tetxera nozean behin, gaztetxeko kide guztiak identifikauta izateko. Emaizta honegaz, Durangoko epai-tegien aurrean alkartuta egozan asanbladakideak eta alkartasunez hurbildutako jentea pozik joan zan.

Izan be, hiru egun beranduago, zapatuan, Kiñu Gaztetxearen XI. urteurreneko jaia ospatu eben, gaztetxeaz hile batzuk gehiago go-zatuteko aukerea izango ebela ja-kinda. Hori bai, epaiketatik urtenda egin eben komunikaduak inoanez: "Gaztetxeak arriskuan segiduten dau eta horrek gure jarduna nor-maltasun osoz aurrera ateratea ekiditen deusku".

Bost urteko gatazkea

Sabadell Bankuak ondasunen bahiketa bateri esker eskura-tu eban, gazteak jada barruan egonda, gaur Kiñu Gaztetxea dan eraikina eta lehenengo salaketea 2020an ipini eban. Ordurako, gazteek aurreko jaubeagaz ados-tuta, sei urteko ibilbidea eukan Kiñuk. Lehenengo epaiketea 2022ko apirlean egin zan eta orduan, Sabadellen abogaduak ez ziran aurkeztu be egin. Alde bien arteko negoziiazinoa mar-txan baegoan be, salaketa barria ipini eban bankuak, atzen epaike-ta hau eragin dauana. Bost urte geroago, luzatuz doa prozesu judiziala.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

# Maiatzaren 4ra arte emon daiteke Euskaraldirako izena

Erredakzinoa

Maiatzaren 15etik 25era egingo da Euskaraldiaren laugarren edizi-noa, euskal herritarren hizkuntza-praktikak aktibau eta euskerearen erabilerea handituteko asmoagaz. Holan, hamaika egunez, egune-roko harremanetan euskerea lehe-netsiko da "praktika sozial masibo bateratu" honen bitartez. Honeta-rako, ezinbestekoa da herritarren parte hartzea eta ariketa sozial honen eragina errazteko, "ahobizi" eta "belarriprest" txapak eroaten dira. Honeek lortzeako, maiatzaren 4ra arte emon daiteke izena

karaldia.eus webgunean.

Txapa Euskaraldian hartuko dan rolaren arabera izango da eta kakoa jokaeran dago, ez euskeraz berba egiteko gaitasunean. Izena ahobizi moduan emoten dabenek euskeraz ulertuten dabenek guztiakaz euskeraz berba egiteko konpromi-soa hartzean dabe eta albokoak euskerea ulerturen dauan ez da-kianean, euskerea izango da beti lehenengo berbea. Belarriprestek barriz, euskeraz dakien edozeineri norberari euskeraz berba egiteko eskatuten deusie baina aldiro erabagiko dabe euskeraz erantzun edo ez.

LEMOA

# Gazte eta adineko lemoaztarrak batuko ditu Belaunaldien Arteko Egunak

Erredakzinoa

Maiatzaren 10ean, zapatua, Kara-bie Gaztetxeko asanbladeak eta Lemoatz jubiladu eta pensinodu-nen alkarteak antolatutako Belau-naldien Arteko Eguna ospatuko da Lemoako eskoletan. Atzenaldian urtero antolatuten dan ekimen honegaz "belaunaldi desbardenen arteko saretzea sendotutea" bila-tuten dabe. Horretarako, aisialdi eskaintza zabala antolatu da egun osorako, herriko beste alkarte ba-tzuen laguntzeagaz. Ekintza hau

Lemoako Kultur eta Memoria As-tearen parte da eta ziur, gazteek beste sasoi batzuetako istorioak entzuteko aukerea izango dabela.

Egunari hasikerea emon eta gorputzak berotuten hasteko, 11:00etan ginkanea egingo dabe eta taldetan, Lemoako Txirrindu-lari Elkarateak prestatutako probak gainditu beharko dabez parte hartzaileek. Hau amaituta, 12:30 inguruan indarrak berreskuratute-ko mokadutxo hartu eta Durundi Barriko jantziariakaz batera, jan-tzalditxo egingo dabe 13:30ean

danak batera poteoan urten au-rretik. Poteoan, Igel Txapelketea jokatuko da giroa animetako.

Bazkaria barriz 14:30ean egin-go da eta menua entsaladeak, marmitakoak eta postreak oso-tuko dabe. Txartelak aprilaren 30era arte egon dira salgai. Baz-kaldu eta bazkaloste lasaia egin-da, barriro helduko da gazte eta adineko lemoaztarrak jantzan ipin-teko ordua, 18:00etan, erromeria dago antolatuta-ta. Bitartean, gura dauanantzako txokolate beroa be zerbitzauko da.

ZEANURI

# San Isidro jaiak ospatuteko lau egun

Erredakzinoa

Maiatzaren 15a da San Isidro eguna eta egunean bertan zein hurrengo astegoienean zehar, Zeanuriko kaleek bere alderik tradizionalena erakutsiko dabe, abeltzaintza eta nekazaritzaren inguruko ekintza ugari egingo dira-ta.

Egun nagusia zapatua, hilak 17, izango da orduan egingo da-ta urteroko Abere, Artisau eta Ne-kazal Produktuen Azokea. Jentez gainezka egongo da Zeanuri ne-kazal produktuak, ganadu-buruak eta baserri munduko erakusketak ikusteko, txistulari eta trikitilari-ek girotutako azokan.

**Maiatzak 15, eguna (San Isidro)**  
11:30ean, umeentzako jolasak plazan.  
12:00etan, meza nagusia San Isidron.  
13:00etan, jantzaldia Arrikibar eta

herriko txistulariakaz.  
18:00etan, idi-proben erakustaldia.

**Maiatzak 16, barikua**  
19:00etan, XLVI. BBK Abesba-tzen Kontzertua Andra Mari elei-zan: Sestaoko Orfeoia, Zeanuriko Abesbatza eta Uri-osteko Orfeoia.

**Maiatzak 17, zapatua**  
10:00etatik 14:00etara, Abere, Arti-sau eta Nekazal Produktuen Azokea eta herriko txistulariak zein Arrapala-dan taldeko trikitilariak herritik.



Bitartean, gaztai egite, sega, ardi mozte zein Enkarterrietako Billa-no txakurren erakusketak, artxo txuleta dastaketea eta *Bertan lan, bertan bizi* argazki erakusketea.

13:00etan, abereen sari banake-tea plazan.  
19:00etan, Zuttik elektrotxarangea.  
22:30ean, Argitu erromeria eta DJ Lander.

**Maiatzak 18, domekea**  
10:00etan, aire zabaleko pintura ikastaro praktikoa (plaza mugatuak).

ZEBERIO

# Hilaren 2tik 4ra ospatuko dira santakurtzeak

Erredakzinoa

Zeberioiko Santa Kurtze ermitea-ren inguruan parebako jai giroa egongo da maiatzeko lehenengo astegoienean, auzoko jaiak ospa-tuko dira-ta, barikutik domekara bitartean. Bariku zein zapatua ekintzaz beterik datoz, goizetik hasi eta gauera arte: mendi urte-kerea, lehiaketa gastronomikoak, jantzak, suzko zezena, herri kiro-lak, kontzertuak eta abar. Dome-kan barriz, dana batu eta ingu-ruak txukun itxeko deialdia egin da eguerdirako.

**Maiatzak 2, barikua**  
11:00etan, urtekerea Helbarren-go iturrietatik.  
18:30ean, txupinazoa eta buru-handiak.  
18:45ean, Tortilla Txapelketarako izen-emotea.  
20:00etan, tortillen aurkezpenak.  
20:15ean, jantza-plaza.  
21:00etan, Tortilla Txapelketako sariketea.  
22:00etan, suzko zezena.

**Maiatzak 3, zapatua**  
12:00etan, mezea.  
Gero, mokadutxo.

13:30ean, herri kirolak Jasoka tal-dearen eskutik.  
15:00etan, bazkaria etxetik ekarri-takoagaz (ura, ardaoa eta ogia jai batzordearen esku).  
17:00etan, Izare poesia.  
18:00etan, olgeta eta txapelketak.  
20:00etan, txokolatadea.  
22:30ean, kontzertuak: Suger (Dima), Foterie (Artea), Katilu (Arri-gorriaga) eta Matxinada (Zeberio).

**Maiatzak 4, domekea**  
12:00etan, desmuntatzea.  
Gero, konbidaduen bazkaria Hel-barrengo etxetan.

AREATZA

# Maiatzeko lehenengo astegoienean ospatuko dira Karpoko Jaiak

Erredakzinoa

Areatzako Karpoko jaiak dirala-ta, Areatza osoan giro alaia espero da hilaren 2 eta 3an, bariku-zapatuan hain zuzen be. Bariku iluntzean trikitilariak ibiliko dira herritik eta zapaturako, egun osorako egitarau potoloa antolatu da: lehiaketa gastronomikoak, merkadua, Areatzako Bandaren kalejirea, plastikuzko ahateen lasterketea, giza proben desafioa eta jaiakaz amaituteko, DJ kalejirea.

Esan moduan, barikuan hasiko da herria girotuten. Honetarako, Etxebarria aita-seme trikitilariak konbidau ditue, 20:00etatik aurrera herrian zehar trikitixeari eta panderoari eragiteko. Hurrengo egunean barriz, goizean goiz beteko da Areatza jentez. 10:00etan, Ganadu, Artisau eta Ekoizle Azokako postuak zabalduko dira, 13:30era

arte. Goizean zehar be, Paella eta Gisadu Lehiaketarako platerak prestatuten ibiliko dira talde ugari erreka pasean eta 12:30etik aurrera, Areatzako Bandea ibiliko da herritik, instrumentuak eskuan, *Doinuak jairik jai* kalejireagaz potea girotuten.

Paella eta Gisadu Lehiaketarako platerak 14:00etarako aurkeztu beharko dira eta 15:00etan bazkari herrikoia egin ostean hasiko da arrastiko egitaraua. Aurten be, 17:00etan, plastikuzko ahate lasterketea jokatu da errekan beheara, zubira lehenengo nor helduko. Lehia ez da hemen amaituko, 18:30ean, herriko talde misto bi alkarren kontra ibiliko dira-ta, giza proba desafioan. Hau amaituta, jai girora bueltauko dira billaroztarrak, 20:00etatik aurrera DJ TRACK-A ibiliko da-ta herrian zehar musikea ipinten.



LEMOA

# Zazpi jarduera Kultura eta Memoria Astea ospatuteko Lemoan

Lemoaztarrei kultura eskaintza berezia proposatu eta Memoria Historikoagaz lotutako espazioak eskaintzeko egitaraua maiatzaren 5etik 11ra zabalduko da.



Erredakzinoa

Badira urte batzuk Lemoan Kultura eta Memoria Astea ospatuten hasi ziranetik eta aurten be, maiatzaren 5etik 11ra, ekintza kulturalakaz gozatu eta Memoria Historikoaren gaineko hausnarketea egiteko egitaraua ateratu dau aurrera Lemoako Udalak. Aste batez, egunero dago antolatuta ekintza bana: proiektzioak, erakusketea, kontzertua, poteo magikoa, Belaunaldien Arteko Eguna eta orientazio proba egingo dira astelehenean hasi eta domekara arte.

Lehenengo ekintzea *Momotoxorroak: Kaos baten istorioa* dokumentalaren proiektzioa eta honen gaineko solasaldia izango da. Hau hilaren 5ean, 18:30ean egingo da Kotxepin Kultur Etxean. Dokumentalak Andra Mari jantza talde galdakaoztarrak Altsasuko inauteri tradizionalak berreskuratuteko egindako ahalegina kontatzen dau eta honek, zelan astindu ebazan altsasuarren konzientziak. Hurrengo egunean, hilak 6, Laburbira Euskerazko Film Laburren

XXII. Zirkuituko zortzi laburmetraien proiektzioa izango da, Kotxepinen 18:30ean. Bertan, *Prosopagnosia, Plazer bat, Betiko gaua, Europa, Pentsatzen dut, Hor konpon, Goodbye Kepler* eta *Utlandsk* egongo dira ikusgai. Eguaztenean barriz, hilak 7, *Odisea 1937* erakusketearen inaugurazioa egingo da, Gerra Zibileko argazkiak erakusten dituan erakusketea.

Kultura eta Memoria Asteko beste zita ohiko bat, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua izaten da. Maiatzaren 8an, Kotxepinen kontzertu bikotxa egingo da, txanda bitan. Bata 18:00etan hasiko da eta bigarrena, 19:30ean. Astegoienari ondoetorria emateko, barikuan poteo berezia antolatu da Lemoako tabernetatik, 19:30ean Txoanetik hasita. Txoborro eta Tor magoek, magia trukuak egingo ditue, potea girotuz. Zapatuan barriz, hilak 10, Karabie Gaztetxeak eta Lemoatx jubiladu eta pensinodunen alkarteak antolatutako Belaunaldien Arteko Eguna ospatuko da eskoletan egun osoan zehar. Ginkanea, jantzak,

triki-poteoa, bazkaria eta erromeria egingo dabez, giro alaiean belaunaldiartekotasuna lantzeako.

Amaituteko, Jesus de la Fuente Orientazio Zirkuitu Herrikoaren bosgarren proba egingo da Lemoan maiatzaren 11n eta hau be, Kultura eta Memoria Astearen barruan antolatu da, COBI *orienting* proben euskal zaleen alkar-teagaz. Proba 10:00etan hasiko da 1936ko Gudarien Parketik eta bideak, Lemoatxko lubakietatik eroango ditu parte hartzaileetako batzuk, mapan markatutako puntu guztiak bilatu bitartean. Izena maiatzaren 7ra arte emon daiteke [www.cobidea.com](http://www.cobidea.com) webgunean.

**Odisea 1937, gerrako argazkien erakusketea**

Memoria Historikoaren gaineko ariketa nagusia, hain zuzen be, *Odisea 1937* argazki erakusketea eta honen inaugurazioan Aitor Miñambres eta Mauro Saraviak eskainiko daben berbaldea da. Hilaren 7an, 19:00etan egingo da ekitaldia Kotxepinen eta erakusketea bertan egongo da hilaren 16ra arte. Federico Gonzalez Erandioko gudariak hamarkada luzez gordeta izan dauzan 24 argazki osotuten dabe erakusketearen muina. Gonzalez Bilboko defentsan zauritu eben eta handik, lehenengo Santander eta gero Asturiasetik pasau ostean, Bidarteko La Roseaie ospitalera eroan eben. Bere moduan beste 1.600 bat gudari eta zibil pasau ziran La Roseaie-tik eta eurretako askok, nazien kontrako defentsan be hartu eben parte geroago, II. Mundu Gerran. Gonzalezen argazkiok, prozesu guzti horreek erakusten ditue, dokumentazio eta azalpenakaz lagunduta.

Antolatzaileak

# Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoia

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 428 78 15 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza

Lehen Hezwuntza

Dorrigorrezko Dagarren Hezwuntza

Datxilergoa

Hezwuntza Zinloa

2 urtetik 13ra



**CAMPUS ZULAIBAR**



**ZULAIBAR**  
ARRATUAKO LANBIDE IKASTE-GA



**AURREMATRIKULA:**  
Maiatzak 5-23

**www.zulaibar.net**

**94 673 91 16**

*Etorkizunerako berrua*



**SAN ISIDRO  
JAIK  
ZEANURI  
2025**

**MAIATZAREN 15a, EGUENA**  
**San Isidro eguna**

**11:30 PLAZAN**  
UMEENTZAKO JOLASAK

**12:00 MEZA NACUSIA SAN ISIDRON**

**13:00 ARRIKIBAR** dantza taldearen emonaldia herriko TXISTULARiakaz.

**18:00 IDI PROBEN ERAKUSTALDIA**

- LUIS URIAGEREKA (Bakio)
- JON ELGEZABAL (Urduliz)
- MIKEL VEGA (Lemoiz)

**MAIATZAREN 16a, BARIKUA**

**19:00 ANDRA MARI ELIZAN**  
XLIV. BBK ABESBATZEN KONTZERTUAK

- ORFEÓN DE SESTAO.
- ZEANURIKO ABESBATZA.
- ORFEÓN DE URI-OSTE (Ortuella).

**MAIATZAREN 17a, ZAPATUA**

**10:00-14:00 ABERE, ARTISAU ETA NEKAZAL PRODUKTUEN AZOKA**  
BURUTUKO DIREN EKINTZAK:

- GAZTAIA EGITEA: Enrike Etxebarria
- KODAÑEA PIKAU: Pabi Astondoa.
- ARDI MOZTEA: Mikel Etxebarria.
- ARTXO TXULETA DASTAKETA.
- ARGAZKI ERAKUSKETA (Pleno Aretoan).  
Zeanuri 2025 - "Bertan lan bertan bizi" (Herriko Argazki Taldea).
- Enkarterrietako Billano txakur arraza erakusketa.

**12:00 ARDI MOZKETA** erakustaldia. Mikel Etxebarria.

**13:00 ABEREEN SARI BANAKETA PLAZAN**  
**Golz guztian zehar PLAZA INCURUAN.**  
Herriko TXISTULARIEK.

**12:00-14:00 HERRIAN ZEHAR.**  
ARRAPALADAN trikitilariak.

**19:00 ZÜTTIK** Elektrotxaranga.

**22:30 ARGITU** erromeria eta ondoren DJ Lander.

**MAIATZAREN 18a, DOMEKA**

**10:00etatik aurrera**  
"Aire zabaleko pintura ikastaro praktikoa" (Plaza mugatuak).



**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Behin berriz jartzea*

- Salmentan zein alokairuan
- Lurrak (arabizak, lantak, basak...)
- Etxebizitzak (pisuak, baserriak, etxeak...)
- Garajeak
- Landa lekuak
- Pabiloiak...
- Balonazkoak

*Behin berriz proiektuak*

- Trakzio berrak erakitzeko
- Energia
- Arkitektura-proiektuak
- Garaie diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza oharikaririk
- Negozioak irekitzeko
- Kudeaketa



Urdulizko Agirre 23. Solairua - 48900  
Agirre 23. Solairua - 48900  
94 673 91 16 - 94 673 91 16  
94 673 91 16 - 94 673 91 16  
94 673 91 16 - 94 673 91 16  
94 673 91 16 - 94 673 91 16



**Kili-Kili**  
Antzerki eta Kulturak

Lehendakari Agirre 10 - 48900 (Bakio)  
Tel.: 94 673 43 61

ITZIAR ITUÑO

"Euskerea modu sutstuan defendiduten dauan euskaldun barria naz eta oso harro nago gainera AEKko ume bat izateaz"

Aprilaren 13an INGOT taldeak kontzertua eskaini eban Arteako Herriko Bentan eta honen aurretik, bandako abeslari eta letragilea dan Itziar Ituño (Basauri, 1974) alkarrizketatuteko aukerea izan genduan. Arratian lehenengo aldia zan bizkaieraz kantetan dauan taldearentzako eta egungo euskal aktore ezagunenetakoa dana, gogotsu etorren Arteara. "Alkartasun kontzertu txikia izango da, intimoa, jentea hurbil egotea beti da polita", inoan Ituñok taula gainera igon aurretik.

Pantailan dan moduan, abeslari moduan hain ezaguna ez bada be, bere ibilbide musikala hurbiletik ezetuteko aukerea izan dogu. Ia 30 urte daroaz Ituñok musikan murgilduta eta bere atzen proiektua dan INGOT taldeak, *La casa de papel* telesailak bultzatuta lortu eban ospea. Honek, pantailako bere lanak baino askatasun gehiago emoten deutsa, arte eraldatzailea egiteko: "Ona da artistak aitzindari izan, abangoardia horren papera hartu eta aldaketarako bere aletxoa emotea".

Erredakzinoa

INGOT taldeagaz bisitauko dozu Artea, nortzuk zarie?

INGOT Bizkaian sortutako taldea da eta bost personak osotuten dogu, Juanpe Salvador Muñoz gitarra-joleak, Roberto Awanari piano-joleak, Roberto Figuera baju-joleak, Joseba Serna bateria-joleak eta nik neuk, Itziar Ituño, abeslari eta letragile modura. Gure estiloa rock'n roll-a izaten da, nahiko psikologikoa eta 1980ko hamarkadan inspiratutakoa. Gu geu leku desbardinetatik gatozelako eta buruan gauza desbardinak daukaguzanez, nahastura bitxia urten jaku.

Bizkaieraz kantetan dogu, saiatuten gara holan idatzi eta kantetan baina kanta batzuk, tupi-guaranieraz grabauta daukaguz. Tupi-guarani kukama, hain zuzen hizkuntza amazoniar bat, bertoko jatorrizko herri batena da eta quechueraz be badaukagu beste abesti bat. Hizkuntza gitxituen aldekoak garalako egin dogu hautu hori. Holan, gai sozialak landuten doguz, politikoak, anekdotikoak eta aldarrikatzaileak. Beste alde batetik, bersinoak be egin doguz, Patagonia Rebelderen erderazko berbak hartu eta euskeratuta, *Horren urrun* gure bersinoa eginda. *Begi urrunei bertsoa* egiteko be, Joseba Sarrionandiaren berbak hartu eta kantua osotu dogu.

Apurtxo bat, intuizinoz egiten



Ituño Loreak filman.

"Pentsetan dot ona dala artistak aitzindari izan, abangoardia horren papera hartu eta aldaketarako bere aletxoa emotea"

dogu aurrera, ze hasi 2017an hasi ginan. Akustikotik hasi ginan, tabernaz taberna ibiliz cover-ak egiten EZ3 taldeagaz eta momentu batean, elektrikora pasetea ebatzi eta gure kanta propioak egitera animau ginan. Holan sortu zan INGOT. Zergaitik INGOT izena? Gure gitarra-jole Juanpe Inbiou izeneko talde santurtziar batean egondakoa zan eta izena gustau jakun. Taldekideak desbardinak ginanez, INGOT ipintea erabagi genduan eta holan, gure asmoa bizkaieraz "egitea" dala argi geratzen da.

2017an hasi ginanean, fenomeno kurioso bat gertatu zan, ez ginan beste talde batzuen modura hasi, hau da, txiri-txiri eta urratsez urrats. Ez, guk gure egitasmoa aurkeztu genduan eta orduan, *La casa de papel* telesailaren olatua etorri zan, bere ugin hedakorragaz. Horrek gorantza bultzatu gintuan, justu hasibarritan. Holako batean, eta entsegu oso gitxigaz, Italiako telebista batean ikusi genduan gure burua, niri alkarrizketa bat egin ostean zuzenean jotea proposatu euskuen eta hara joan ginan,

urduri Erromara. Perun be egon ginan, kanta bat egin gendualako petroleo isuriketen aurkakoa eta Amazoniaren aldekoa eta nik, aktore moduan neukan oihartzuna aprobetxauz, konbidau ginduezan aldarrikapen hori bultzatzeko. Eta hara joan ginan, Liman eta Amazonian be kantetan. Han izan zan gure lehenengo kontzertua INGOT moduan. Holan, gure harridurarako, fan ugari sortu ziran munduan, Brasilen eta Argentinan kasu. Brasilera be joan ahal izan ginan, Sao Pauloko Carioca salara berbarako. Gu bizkaieraz

kantetan eta jenteak gure letrak ekiezan, harritzekoa! Handik Pernambucora be joan ginan, Brasilen bertan. Modu kuriosoan hasi ginan eta gero apur bat lasaitu zan egoerea eta ibili gara "bolo" txikiak egiten festetan, tabernetan, gaztetxeetan... Egin dogun kontzerturik handiena oin gitxi izan da, BECen, ZEID Fest-en hain zuzen be. Ibilbidea egiten gabiz.

**Abeslari moduan ez zara aktore moduan bezain eza-guna. Kontau zeure ibilbide musikala.**

Musikan zaletasunetik hasi naz, ez modu profesionalean. Momentu baten panderoa joten ikastea ebatzi neban eta hor ibili nintzan, autodidakta, lagun batzuen laguntzeari esker lehenengo tokeak emonda eta gero, etxean "jotafuego". Denporeagaz, kalejiretan eta ibilteko aukerea sortu zan, trikipoteoak eta abar. Gero, plaza-jantza talde bat osotu genduan, Dangilizke izeneko, eta ibili ginan erromeriak eta plaza-jantza nahikoa egiten Euskal Herritik. Ahaztuak alkartearentzako kanta batzuk be grabau genduzan. Urteetako ibilbidea egin genduan, 1998 edo 1999 inguruan hasi ostean. Plazetan hasi neban ibilbide musikala. Juanpe be, gure gitarra-jolea, Dingilizken sartu zan eta berak proposatuta sortu genduan gerora EZ3. Holan ibili ginan INGOTera pasau arte.

Horrezaz gainera, kolaborazino desbardinak be egin dodaz atzen urteotan: Anne Etxegoien, Pirritx eta Porrotx, Dupla, Korrontzi, Jon Maia, Olatz Salvador...

Abesten be ikasi dot, ibiliaz, baina egia da antzerki klaseetan be ahotza zelan erabili irakasten dabela. Gauza desbardina da abeslaria izatea, baina bai, oinarria emoten dau antzerkiak.

**Aktore moduan, arrakasta handiko pelikuletako protagonista izan zara (Loreak, Lasa eta Zabala, Irati...). Ze errastu itxi dabe zugan pertsonaiek?**

Aktore moduan beti zoaz pertsonaiez aldatuten eta bakotzak zer edo zer emoten deustu, beste



INGOT taldea Arteako Herriko Bentan.

batzuk kendu bebai. Gatxa izaten da aukeratutea baina beti geldituten dira gure gogoan pertsonai batzuk: Loreak-eko Lurdes, Goenkale-ko Nekanek be orotzapen politak itxi dauz... Baina berezi-berezia egin jatana *Ilargi guztiak*-en egindako dama ilun ha izan zan; gogoan daukat oso prozesu polita izan zala. Bakotzak gauza ederrak emoten deustuz, gehienetan.

Zelan ez, Raquel Murillo "Lisboa" aitatu behar dot, lan pilo bat baina opari ugari be ekarri deustazan pertsonaia. Munduan zehar bidaiatu ahal izan dot. *La casa de papel* telesailari esker ezetu dodaz oso leku bitxiak: Dubai, Kuwait, Arabia Saudi, Turkia... Gauza handiak ekarri deustaz baina kendu bebai, persona normal bat izatearen askatasun hori. Bat-batean figura publiko bihurtzean asko galtzean dozu, munduan zehar ibilteko mobimentu askatasuna berbarako, eta peaje handia da hori. Eroaten ikasi behar da, batzuetan ez da erraza.

**Eta zer suposatatu dabe zuretzat telebisinoko serieek?**

**Goenkaletik hasita eta Touré detektibera arte hainbat eta hainbatetan egon zara, La casa de papel euren artean.**

Egia da telesailak lan handia emoten dabela epe luzera, taula gaineke esperientzia be bai. Baina aukeran, nik beti esaten dot gurago dodazala zinema eta antzerkia, telebista baino, formatua dala-ta. Etxean ikustea serie bat zein pelikula bat, edo pantaila handi batean ikustea... Ez dago konparazinerik, niretzako.

Telesailetan ikasketa prozesu potentea izaten da, abiadura handian egiten dalako dana. Orduan eskarmentua pilatuten dozu gero-rako eta ikasten da, momentu latzetan be erantzuten. Hori da igual telebistak emoten dauan onena.

**Antzerkiak publikoagaz hartu-emon zuzena eskaintzen dau. Zer da zuretzat antzerkia egitea?**

Niretzako antzerkia egitea mamira itzultzea da, nik uste dot antzerkia danaren ama dala. Badago jentea holan ikusten ez dauana baina niretzako, aktore on batek ondo maneja behar dau bere burua

oholtza gainean. Hori gauza zailenetarikoa da aktoreontzako, eszenatokia kontroletea hain zuzen be. Egia da beste batzuek zinea aukeratuten dabela baina antzerkiak emoten dauzan erremintak balio dabe gero telebistarako eta zinerako, nahiz eta dosi eta medio diferenteetan izan.

**Euskalzalea eta kausa askogaz konprometiduta zagoz. Uste dozu arteak mundua hobetu leikela? Musikeak eta arte eszenikoek ekarpena egin leikela horretan? Eta artistea busti egin behar dala?**

Bai, sinisten dot artea eraldatzaila izan behar dala, aldaketaren motorra. Artea giza adierazpenagaz dago harremanduta modu zuzenean. Guk gauzak adierazoteko orduan artea sortzean dogu: antzezlan bat, koadro bat, figura bat, kanta bat... Modu diferenteak daukaguz komunikatzeko, sortzeako, mezu bat botateko. Gure sentipenen adierazpen garbia da, oso gauza sakona. Nik uste dot artea aldaketarako ezinbesteko tresnea dala.

Sistema honetan oso ondo da-

kie hori eta horregaitik, saiatzen dabiz artea konsumorako gauza erraz bat bihurtu eta indargabetzen. Baina niretzako, sentimenduak horren harreman zuzena eukita, pertsonen pentsamenduak aldatzean eta ekintzara pasetean, artea kapaza da munduan gauzak aldatzeko eta horren bildur da sistema hau. Horregaitik pentsetan dot ona dala artistak aitzindari izan, abangoardia horren papera hartu eta aldaketarako bere aletxo emotea.

Ze begiratu zelan dagoan mundua... Mundua konpondu egin behar da eta gu ez gara beste planeta batean bizi. Hemen bizi gara eta gure ardurea be bada. Gero, bakotzak gura dauana egin dagiala, bildurra librea da, eta gizakion beste parte handi bat berekoieria da. Bere zilborrari begira bizi da jente asko baina holango ikuspegia ez daukagunok pentsetan dogu behar-beharrezkoa dala bustitea.

Eta bai, euskerea modu sutsuan defendiduten dauan euskaldun barria naz eta oso harro nago gainera AEK-ko ume bat izateaz.

Udabarria

bertsotan<sub>2025</sub>

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea

OROZKO

Maiatzak 15

Donibane Aretoan, 18:30ean

B multzoa

- Ander Aldazabal Olabarri
- Ander Sarriugarte Garcia
- Ander Ucelay Aristi
- Arkaitz Zipitria Mendizabal
- Inazio Vidal Gurrutxaga
- Iruñe Basagoiti Agirre

Gai-emailea: Idoia Anzorandia Kareaga


[www.bertsozale.eus/bizkaia](http://www.bertsozale.eus/bizkaia)

[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

Anolatzaila

Babesleak

Laguntzaileak





# EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkerro, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) garagarriaren 28ra arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

## SARIAK

### A

### ENEKO

**Eneko Atxaren** Larrabetzuko ENEKO jatetxean SUTAN menua maridajeagaz lagun birentzako.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkartea** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonia: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

### HOTEL ORDUÑA PLAZA



### B

### HOTEL BALNEARIO ORDUÑA PLAZAN

astegoien pasa: gau bi,  
zirkuitua, gosaria eta  
masajea lagun birentzako.





# Arratiako Musika Eskola

## IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

**Matrikulazioa ONLINE**  
[www.arratiakomusikaeskola.eu](http://www.arratiakomusikaeskola.eu)

**\* INFORMAZIOA:**

- Web gunean
- Astelehen eta asteazkenetan  
10:00etatik - 13:00etara
- Astearte eta ostegunetan  
15:00etatik - 18:00etara

Telefona: 94 631 73 52

**MATRIKULA**  
Epea: maiatzean

ONLINE



## ESKAINITZA OSOA

**GOI-MAILAKO ZIKLOAK**

- Metal Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrial
- Garraioa eta Logistika

**ERDI-MAILAKO ZIKLOAK**

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

**ZIURTAGIRI PROFESIONALA (C gradua)**  
 Giro naturalean eta babestuan soldatzea (627 ordu)

**ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA**

Langabeei eta landunei zuzendutako ikastaroak

**BERRIA**

**ZORNOTZA**  
 CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL  
 LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

**Aurrematrikula**  
 maiatzaren 5etik 23ra

**Matrikula**  
 uztailaren 11tik aurrera

**Ate irekiak**  
 maiatzaren 7an

946 730 251 | [info@fpzornotza.h.eus](mailto:info@fpzornotza.h.eus) | [www.fpzornotza.h.eus](http://www.fpzornotza.h.eus)

Fp FUNDACIÓN PROFESIONAL DE FORMACIÓN PROFESIONAL

FUNDACIÓN PROFESIONAL DE FORMACIÓN PROFESIONAL

# KARPOKO JAIK 2025

## **Maiatzak 2, barikua**

20:00 Etxebarria aita-semeakaz kalejireia herriko kaleetan zehar.

## **Maiatzak 3, zapatua**

Paella eta Gisadu Lehiaketak erreko paseoan.

10:00-13:30 Ganadu, Artisau eta Ekoizle Azokea.

12:30 Areatzak Bandaren *Doinuak jairik jai* kalejireia herrian zehar.

14:00 Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena.

15:00 Bazkari herrikoia.

17:00 Plastikuzko ahate lasterketea errekan.

18:30 Giza proba desafioa Goikokalen. Herritarren talde misto bi alkarren kontra.

20:00 DJ TRACK-A herrian zehar.

bbkē



ORIENTAZINOA

Arratia Raidek orientazino proba antolatu dau

Erredakzinoa

Maiatzaren 17an, zapatua, orientazino proba herrikoia egingo da Igorren, Arratia Raid *orienting* zaleen taldeak antolatutakoa. Oin dala urte batzuk, Arratia Raidek antolatutako hainbat proba egi- ten ziran eskualdean eta honeen bueltea ospatu dabe antolatzai- leek: "Orientazinoa bueltan da Arratian, animau!". Goizean ze- har egingo dan proba honetan, mapea eta iparrorratza erabilita, partaideek hainbat baliza topau beharko ditue Igorretik, ordu eta erdiko tartean, banaka zein, gehie- nez be, lau personako taldeetan.

Izen-emotea

Izena orientazino probaren karte- leko QR kodearen bitartez emon daiteke edo [labur.eus/orientazioigorre](http://labur.eus/orientazioigorre) helbidean. Banaka edo taldeka egin daiteke inskripzioa eta gero, heldu bakotxeko 5 euro eta 17 urtez azpiko partai- de bakotxeko euro 2 ordaindu beharko dira ES49 2095 0154 50 9114222084 kontura trans- ferentzia eginaz. Prezio barruan sartzean dira mapak, aseguruia eta mokadutxoa.



FUTBOLA

Maiatzaren 4an jakingo da andrazkoen Arratia A taldeak mailaz igoten dauan edo promozinoa jokatzen dauan

Andrazkoen Arratia A taldeak zuzenean mailaz igoteko irabazi egin behar dau domekan, maiatzak 4, Urbietan Tolosa taldearen kontra jokatuko dan ligako atzen partiduan eta Burgosek Athletic C taldearen kontra bardintzea edo galtzea behar dau. Beste emaitza batek ez leuskio zuzenean igoteko aukerarik emongo baina promozinoa jokatu leike emoten diran emaitzen arabera. Gizonezkoen Arratia A taldea ostera, laugarren postuan dago igoeratik lau puntura ligea amaitzeko lau partiduren faltan.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak apirilaren 27an jokatu eban Mu- lier talde nafarraren kontra etxe- tik kanpo eta 1-0 galdu eban. Partidu oso garrantzitsua zan arratiarrentzat bertan irabazteak aukera handiak emoten eutsa- zalako mailaz zuzenean igoteko. Arratia A laugarren postuan dago eta postu horrek, Athletic C tal- deak ezin daualako igon, igoera promozinoa jokatzeke aukerea emoten deutsa. Dana ebatziko da datorren astegoienean jokatuko dan atzen jardunaldian, Arratia Ak Tolosa hartuko dau Urbie- tan, maiatzaren 4an, eguerdiko 12:00etan. Arratiak irabazi ezkeru eta Athletic Cren kontra hiruga- rren postuan dagoan Burgos tal- deak bardindu edo galdu, Arratiak zuzenean igongo leuke mailaz. Burgosek, Arratiak eta Alaves B taldeek jokoan daukie igoerea, promozinoa jokatzea edo balizko promozino bat jokatzea.

Andrazkoen Arratia B taldeak apirilaren 27an jokatu eban Ur- bietan Ariz taldearen kontra eta bina bardindu eban. 7. minutuan kanpotarrak aurreratu ziran markagailuan, baina Uxue Aurt- netxek banakoa sartu eban 33. minutuan. Bigarren zatian Naia- ra Jovek sartutako penalti batek aurreratu ebazan arratiarrak, baina partiduren 82. minutuan Basaurikoen bardinketea heldu zan. 24 jardunaldiren ostean 41 puntu ditu Arratia Bk eta bosga-



Andrazkoen Arratia A taldeko jokalaria Urbietan gol bat ospatzen.

rreren postuan dago. Atzen parti- dua Ibaiondo-Nerbioi A taldearen kontra jokatu eban etxetik kan- po maiatzaren 1ean, eguerdiko 13:00etan, BEGITUk erredakzinoa zarratu ostean.

Apirilaren 26an jokatu eban gizonezkoen Arratia A taldeak Urbietan Zaldia A taldearen kontra eta atsedenaldira ba- nakoagaz heldu baziran be 5-1 irabazi eban Igorreko taldeak. Galtzean hasi zan etxeko taldea Zaldia Ak 36. minutuan sartu- tako golagaitik baina sei minutu- ra Jon Ordeñanak bardinketea lortu eban. Bigarren zatian arratiarrek aurea hartu eban Oier Arrizabalaga igorreztarrak sartutako golari esker, hurrengo gol biak Ekain Garaizar dimozta- rrak sartu ebazan eta atzen gola Anton Iza dimoztarrak sartu

eban. 30 jardunaldiren ostean eta ligea amaituteke lau jardun- aldiren faltan 50 puntu ditu Arratia Ak eta laugarren postuan dago, igoera postuetan dagoan Iturigorri A taldearengandik 4 puntura. Atzen partidua etxetik kanpo jokatu eban Galea A tal- dearen kontra maiatzaren 1ean, goizeko 11:00etan, BEGITUren erredakzinoa zarratu ostean.

Apirilaren 27an jokatu eban gizonezkoen Arratia B taldeak Ur- bietan eta 0-1 galdu eban Moraza A taldearen kontra. Gola 13. mi- nutuan sartu eban kanpotarrek. 30 jardunaldiren ostean 36 pun- tu ditu Arratia Bk eta hamabiga- rren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Ermua A taldearen kontra maiatzaren 4an, arrastiko 16:15ean.

Lemoako Harrobi

Apirilaren 27an jokatu eban Le- moako Harrobi taldeak Arlonagu- sian eta 1-2 galdu eban Ermua A taldearen kontra. Kanpotarren go- lak 29. eta 45. minutuetan heldu ziran; lemoaztarrek alde txikitu eben partiduko 87. minutuan Ju- len Fernandezek sartutako golari esker. 30 jardunaldiren ostean 33 puntu ditu Lemoako taldeak eta hamahirugarren postuan dago sailkapenean. Atzen partidua etxetik kanpo jokatu eban Monte- fuerte A taldearen kontra, BEGI- TUREN erredakzinoa zarratu ostean, maiatzaren 1ean, 11:45ean.

Urbihools Kopa

Urbihools Urbietako zaleen taldeak antolatuta, Udalaren laguntzeagaz, Urbihools II. Kopa jokatuko da bagilaren 21ean. Txapelketan parte hartzeako baldintza bakarrak, hamasei urtetik gorakoa izatea eta gitxienez, zazpi jokalariko taldeak osotutea dira. Aurtengoan taldeak mistoak izan ahal dira. Izena, [@urbihools](https://www.instagram.com/urbihools) Instagram kontuan emon daiteke hilaren 23ra arte eta taldearen izena, partaideak eta ordezkari baten telefonoa emon behar dira.

Personako, bost euro ordaindu beharko dira eta bertatik urtengo da sarietarako dirua. Lehenengo hiru taldeek izango dabe kopea eta dirusaria. Horrezaz gainera, txapelketako jokalaria onenari, "kopako fraudeari" eta beste sariren bat be emongo dabe antolatzailleek.

maite  
zaitut

**FESTA  
ERRALDOIA**

Bizkaia Arena - BEC!

Itziar Ituño Gure Zirkua  
Gozategi Go!azeneko lagunak  
Tapia eta Leturia Eñaut Elorrieta  
Olatz Salvador Kai Nakai  
**ETA GEHIAGO!**

EROSI SARRERAK:  
[nikeremaitezaitut.eus](http://nikeremaitezaitut.eus)

BOLA-JOKOA

Juan Mari Aurtenetxe  
"Txirpu" eta Mikel Lekuona  
"Kaiku" txapeldun Arratiako  
Binakako Bola Txapelketan

Erredakzinoa

Aprilaren 26an jokatu ziran sailkatze tiraldiak eta aprilaren 27an jokatu zan Lemoako bolalekuan Binakako Arratiako Bola Txapelketea, eta bertan, Oba taldeko Juan Mari Aurtenetxe "Txirpu" dimoztarra eta Igorreko Mikel Lekuona "Kaiku" San Kristobal taldekoa izan ziran txapeldunak 687 puntugaz. Bigarren Ismael Manzanedo eta Iskander Barrenetxea Lemoa A taldeko lemoaztarrek egin eben 654 puntu lortuta. Podiuma

Elorriaga taldeko Done Intxaustik eta Iñaki Arrate lemoaztarrek osotu eben 474 puntugaz. Lau garren izan ziran Igor Bernaola eta Jose Luis Arrizabalaga "Arri" San Kristobal taldeko igorreztarrek eta bosgarren Lemoako Elorriaga taldeko Manex Izagirre eta Nerea Etxezarraga lemoaztarrek. Gogoratu Txirpuk Banakako Txapelketa be irabazi ebalu aprilaren 13an. Datorren tiraldia, Arratiako Komarkala Txapelketako laugarrena, Dimako Oba auzoan izango hilaren 10ean, 16:30etik aurrera.



Mikel Lekuona eta Juan Mari Aurtenetxe.

beginu

EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN  
ETA SARI POTOLO HONEEK  
IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkeru, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) garagarriaren 28ra arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

**SARIAK**

**A ENEKO**

Eneko Atxaren Larrabetzuko ENEKO jatetxean SUTAN menua maridajeagaz lagun birentzako.

**B HOTEL ORDUÑA PLAZA**

HOTEL BALNEARIO ORDUÑA PLAZAN astegoen pasatze gau bi, zirkuitua, gosaria eta masajea lagun birentzako.

Ez galdu aukerea!!

ORIENTAZINOA

Lemoan jokatu da Jesus de la Fuente XI. Orienting  
Zirkuitu Herrikoiaaren  
atzen proba

Erredakzinoa

Maiatzaren 11n, Lemoako Kultur eta Memoria Astearen ekintzea izanda, Bidea Orientazio Klubak (COBI) antolatutako Jesus de la Fuente XI. Zirkuitu Herrikoiaaren bosgarren eta atzen proba jokatu da Lemoan. Hamaikagarren edizino honetako hirugarren proba be, gauzez egin dan bakarra, Arratian jokatu zan abenduan, Artean hain zuzen be. COBITik, orientazioa gustuko daberenak, kirola egiteko gogo daukien familiak eta zailtasun handirik bako martxak gustuko dabezan personak deitzean ditue proba honeetara. Izen-emotea zabalik egongo da maiatzaren 7ko 23:59ra arte eta [www.cobidea.com](http://www.cobidea.com) webgunean dagoz zehaztuta

emon behar diran pausak. Proba herrikoi hau Lemoako herri-gune eta Lemoatx inguruan pres-tatu diran zailtasun desbardineta-ko lau zirkuitutan egingo da eta nor-

berak aukeratuko dau zeinetan parte hartu. Behar diran gauza bakarrak, SPORTident aplikazioa eta iparrorratza dira. Honeekaz goi-zean zehar, 10:00etatik 14:00eta-ra, zirkuitu bakoitzean ipini diran marka guztietatik ordenean pasau beharko dira parte-hartzaileak, gero helmugara bueltetako. Ibilbi-deak 1.600 metroko luzeeran eta 20 metroko desnibelean hamar baliza topetatik, 7,5 kilometro eta ia 400 metroko desnibeleko bidean 24 baliza topetera doaz; atzenengo hau, "orientazioan eskarmentu handikoentzat" da antolatzaileen arabera.



ERRUGBIA

Atzen partidua irabazita, zazpigarren  
postuan amaitu dabe zekorrekin ligan



Erredakzinoa

Aprilaren 12an jokatu zan Euskal Liga Senior 2. maila errugbiko atzen jardunaldia eta Ekin Eraiketarak Arra-tiko Zekorrak taldeak Gesalaga Oke-lan Gipuzkoa Sortzen taldea hartu eban San Txisme zelaian. Ligan atzenak ez amaituteko beharrezkoa eukien arratziarrek garaipena eta holan egin eben, 40-17 irabazita. Holan, Uribealde Mungia taldea aurreratu eta Gipuzkoa Sortzen tal-deagaz bardinduta, puntu aldeari esker aurrera egin eta zazpigarren postuan amaitu ahal izan dabe

2024-2025 ligan. Jokatutako atzen jardunaldia, Imanol Iriondo jokalaria- ren esanetan, txarto hasi zan zeko- rrentzako: "Aurkariak hamahiru ziralako konfianta edo guztiz lo, hainbat akats egin genduzan eta eurek gogor jokatu eben". Halan- da be, lehenengo zatia irabazten, baina alde txikiagaz amaitu eben arratziarrek, 21-17. Bigarren zatian barriz, "baloia kanpora jokatute- ko" asmoagaz urten ziran zeko- rrak eta emoitza emon ebazan estrategia aldatzeko: "Ez ziran gu segiduteko kapaz eta hamai-

ru bakarrik egonda, igarten da". Holan, puntuak puntu aurrera egin eta garaipen erosoak eskuratu eben, 40-17. Aurtengo emaitzak oso onak izan ez badira be, Ekaitz Duña-beitia entrenatzaileak BEGIturi egindako adierazpenetan azaldu dau, taldea trinkotuteko balio izan daua aurtengo denporal- diak: "Ekipo moduan ondo kon- pondu gara eta aurreko urteakaz alderatuta hobeto ibili gara jente aldetik". Beraz, hurrengo urterako plana egiteko garaia izango dabe oin zekorrekin.

IRAKURLEEN TXOKOA

Marjane Satrapiren  
*Persépolis* landuko dabe  
Arteako Irakurleen Txokoan

Erredakzinoa

Maiatzeko Arteako Irakurleen Txokoko saioa hilaren 9an, barikua, egingo da Kultur Etxean eta berbagaia Marjane Satrapi komikigile irandarraren lanik eza-gunena izango da, *Persépolis* nobela grafikoen bildumea. Ohikoa denez, Alaine Agirre idazleak bideratuko dau Irango iraultza islamikoa eta osteko urteak nes-kato baten ikuspuntutik kontetan dauan autobiografiaren gaine-ko lanketea. Saioari 19:00etan emongo deusie hasikerea.

Marjane Satrapi (Iran, 1969) Teheranen hazi zan eta honen gurasoak Irango mobimentu so-zialista eta komunistetan ibiliak ziran. Gero baina, Vienara egin eben iges eta bertan bizi ostean, Satrapi Teheranera bueltau zan unibersidade ikasketak egin eta honeek amaituta, Europara bueltetako. 2000 eta 2003 ur-teen artean frantsesez argitaratu



ziran *Persépolis* bildumearen lau bolumenek urte horreek kontetan ditu, idazlearen ikuspuntutik. Tartean, irandar Iraultzea, Iran-Irak gerrea eta Golkoko Lehen Gerrea moduko gertakera historiko garrantzitsuak kontetan ditu nortasunaren eta exilioaren inguruko gogoetak nahastuta.

JAIA

Antxinako erromeriak  
berreskuratuteko ekimena  
antolatu dau Gazte Barrik

Erredakzinoa

Sasoi honetan Dimako Gazte Barri Dantza Taldeak Dantzari Eguna ospatuten dau urtero baina oin-goan, "desbardina dan zeozer egin eta egunaz disfrutetako asmoagaz", Amaia Urkiagak azaldu dauanez, Lehenagoko Erromeria antolatu dabe. Holan, maiatzaren 10ean antxinako moduko erro-meria egingo da. Urkiagak azaldu dauanez, "gure gurasoek jantzan plazetan egiten baeben be, an-txina ermiten inguruan egiten ziran erromeriak". Beraz, Dimako Bargondia auzoko Santa Apolonia ermitan egingo da jantzaldia eta jantzari, familia, lagun zein ikusleei baserritarrez jantzita joateko deia egin deutsee. Baserritar jantzirik ez dabenak fraka bakeru, alkonda-ra zuri eta zapiagaz joan daitekez. Urtero egiten dan Dantzari Egu-nean moduan, Areatzako Dantza Taldea, Arteako Gangorri, Igorreko Arantzarte, Lemoako Durundi Bar-ri, Otxandioko Urduri eta Zeanu-riko Arrikibar taldeetako jantzariak batuko jakiez Gazte Barri talde dimoztarrari erromerian. Jaiaren ha-

sikera, guztiak Bargondiara heldu bitartean, Dimako albokariak bero-tuko dabe giroa 16:15etik aurrera. Ekitaldia 17:00etan hasiko da jantza taldeek bost bat jantza eginaz eta gero emongo jako hasikerea jaiari, Elizagoien ahizpa trikitilari nafarren musikeagaz girotutako erromerian. Holan, antxina modura, edozein batu ahal izango da jantzaldira. Jaiak iraun bitartean, komunak, txosnea eta taloen postua egongo dira Bar-gondian. Eguraldi txarragaz fron-toian izango da jantzaldia.

Bargondian autoentzako leku gitxi dagoala-ta, Gazte Barrik autobusa kontratau dau Dimatik joan-etorriak egiteko. Erromeria 17:00etan hasi eta 19:30ean amaitutea espero da eta aurre-tik zein atzetik, 16:00etan hasi eta 17:00ak arte igoteko eta 19:30etik 21:30era arte bajatu-teko autobusa ibiliko da, eskola-tik Santa Apoloniara arte. Lehe-nengo autobusean, 16:00etan, jantzari eta begiraleak igongo dira eta gero igon ahalko dira jantzarien familia eta lagunak zein bertaratu gura dan edonor.

ERROTAK

Errotarik errota ibilaldia Zeanurin

Maiatzaren 11n izango da Zeanuriko Erroten XVIII. Ibilaldia.



Pedro Elexpe Ibargutxiko errotan beharrean.

Jon Urutxurtu

2025eko Zeanuriko Erroten Ibilal-dia maiatzaren 11rako prestatu dau Joko Alai alkarteak. Aurten oinezko ibilaldi honek hamazortzi-garren edizinoa beteko dau.

Antolatzaileek adierazo dabenez ibilaldiaren helburuak hasikerako berberak dira: "Alde batetik, herri-tarrei zein kanpotik hurreratzen diran bisitariei Zeanuri eta bere auzoak ezetutera emotea; bestetik, Zeanuriren historian errotek izan daben garrantzia ezagutara-zotea eta azkenik, domeka goiza natureagaz harremanetan eta kirola eginaz pasetako aukerea es-kaintzea". Ez dira gitxi, izan be, he-rri honetan ezetuten diran edota han-hemenka azaltzen diran erro-tak edo erroten errastuak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar zazpiren ondotik pasauko dira ibiltariak eta hiru-tan —Errotabarrin, Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

Joko Alaiko arduradunen arabe-ra, "ibilbidea ezin hobea da fami-lian eta umeakaz egiteko, errotrak eta euren instalazinoak —presea, kaltzea, anteparea, errotarriak mobimentuan eta artoa ehotzen, errotapea, energia hidraulikoa...— lasaitasunez ikusteko aukerea emonaz. Beraz, domeka goiza ki-rola eginaz eta natureaz gozatzeaz gain, erroten mundua ikusteko eta ikasteko aukerea emoten dau ibi-laldi honek".

Ibilbide bi prestatu dabez anto-latzaileek, bata luzea, 14 kilome-trokoa, eta bestea, laburragoa 7 kilometrokoa, umeentzako edo ondo prestatuta ez dagozanen-tzako egokitua, jan-edana bana-tuko dan tokitik helmugara zuzen-tzen dana. Gainera hemendik be bisitatzen diran errota bitara sar-tzeako aukerea izango dabe: Errota-barrira —helmugara bidean— eta

Olabarrira, azken hau helmugatik 300 bat metrora dago-ta.

Urtekerea herriko plazan izan-go da, goizeko 09:00etan; plazatik, udaletxearen aurretik, abiatuz eta Altzibar eta Errotabarri erroten ondotik —azken hau 2015ean za-harbarritu eben manterolatarrek eta sartu-urtena egin ahal izango da— pasau ostean, Undurragako urtegiaren ertzetik egingo dabe aurrera.

Urtegia atzean itxi bezain laster Ibargutxiko errotarako bidea har-

tuko dabe; hemen, ateak zabalik izango dira, eta gura dabenek kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibargutxitik barri-ro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo deusie bideari —oingoan beste aldetik—; presatik 100 me-tro atxina, Alkiberren, indarrak barritzeko jan-edana banatuko da. Aurrerantzean, lehenengo Otzerin-mendi auzunean eta gero Uribeko kofradiako lurretan sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, azken kilometroa be-teten hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errotea azalduko da, Ola-barrikoa —Pujana familiak guztiz zaharbarritua— eta hemen be sartu-urtena egiteko aukerea izan-go da, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaiera emon aurretik.

Ibilbidea burutzerakoan, 14 ki-lometro eroango dabez oinetan ibiltariek, baina ziur ziteari eran-tzuteak mereziduko deusielia, erroten ondare historiko-etnogra-fikoa ezetuteaz gain, udabarrian natureak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeako aukerea izan-go dabe-ta.

Bisitetan diran hiru errotrak

Ibilbidean zehar zazpi erroteren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egi-teko, eta errotea osotzen daben atalak bertatik bertara ezetuteko aukerea izango dabe.

Errotabarriko errotea: Otzerinmendiko kofradian dago. 1785ean eregi eben. Zeanuriko errotarik barriena da. Hiru harri ditu. Errota honetan, presea eta anteparea lotuta dagoz konporta baten bidez. Zeanuriko gainontzeko errotetatik bereiztuz, Errotabarrin errotapetik kaltze bat ateraten da, urak erre kara bideratzeko. 1975eko apirlean itxi eutsan lan egiteari eta azken errotaria Andres Aldekoa "Ane" izan zan. 2015ean guztiz zaharbarritu eban Errotabarri Manterola familiak.

Ibargutxiko errotea: Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. gizaldian bur-dinolea izan zan. Gaur egun harri bi badaukaz be, hiru harrigaz egin eban behar. Hirugarren harriak 1950erantz itxi eutsan lan egiteari. 1945ean erretearen azpikaldean turbina bat eta generadore bat ja-rriz argindarra ekoizten hasi ziran Ibargutxin, eta 1978ra arte gitxi go-rabehera Altzua, Ipiñaburu eta Undurragako baserri batzuetara sal-tzean eben elektrizidadea. Ibargutxiko erretearen instalazinoak guztiz zaharbarrituta dagoz. Azken errotaria Gabriel Larrazabal izan zan, eta bere heriotzearen ostean, urte batzuetan, Satur semeak jarraitu eban ingurukoentzat eihotzen. 2019an Pedro Elexpek erosi eban errotea eta bera da gaur egungo jaubea.

Olabarriko errotea: Ibarguen kofradian dago. Jatorriz burdinolea izan zan eta Zeanuriko patronoa zan Arriola familiaren jaubetzea. Pujana-tarren aurretik Manterola familiak ustiatu eban, 1898ko zemendiaren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, erretea-ren kargu egin zan arte. XX. mendearen erdirantz Benigno Pujanak —Isidoren semeak— errotea erosi egin eutsen arriolarrei. Benignok errotari lanetan jardun eban 1995eko urri bigarrenaren 11n hil zan arte. Aitaren heriotzearen ondoren, Fermin semeak erretearen zaharbarri-tze lanei heldu eutsan, eta gaur egun guztiz zaharbarrituta dago.

Olabarriko erreteak hiru harri ditu. Erretearen ondoan burdinolaren errastuak azaltzen dira. Erabilitako balantzea be errotan gordeten da.

ANTZEZLANA

Osasun mentalaren  
gaineko antzezlanak dakar  
Lasarte Aretoak



Erredakzinoa

De Ste Xeito konpainia galizia-  
rreko kideak Igorreko Lasarte  
Aretoan izango dira hilaren 4an,  
domekea, 19:00etan, *Neura, una  
comedia neurótico-festiva* an-  
tzezlanak jante-aurrean taulara-  
tuteko. Manuel Pombalek zuzen-  
dutako obra hau Sergio Macías  
eta Stephy Llaryora aktoreek  
antzeztuko dabe. Konpainiak  
azalduten dauanez, bikotekide  
ohi biren istorio hau ez da ko-  
media erromantiko bat, osasun  
mentala jorratuten dauan kome-

dia da, "hori bai, minuskulas".  
Bikotekide ohien arteko harre-  
mana kontetan dau antzezlanak  
eta protagonista biak, euren zein  
bestearen maniakaz bizi behar  
dira. Kiska horreetako batzuk  
ostondu egiten ditue, beste bat-  
zuk harro erakusten dabezan  
bitartean. Maniak batzuetan  
tolerau eta beste batzuetan  
honeentzako tratamenduak bi-  
latuten badabenez, maniak beti  
dira sufridu arazoteko errazoa  
protagonisten arteko harreman  
"lausoan".

Sinopsia

*Neura* ez da komedia erroman-  
tikoa: Eduk eta Soniak iraganean  
bizi izan eben euren maitasun  
eta desamodio istorioa. Istorio  
hori, hain zuzen be, nahasmen-  
du txiki horreen ondorioz amai-  
tu zan. Ez dira lagunak, ez dira  
maitaleak. "Ex" deitzean dogun  
kategoria lauso hori dira. Bes-  
tearen odol-taldea be ezetuten  
dogu, baina perfektuki ezeza-  
gunak bagina modura jokaturen  
dogu. Bizitzako zorien ondorioz,  
egoera desbardinetan alkatu-  
ten dira barriro. Bere neuren  
bateragarritasuna barriro fro-  
gatzera behartuta.

URTEURRENA

Laminetxek hirugarren  
urteurrena ospatuko dau

Erredakzinoa

Areartzako Laminetxe Gaztetxea-  
ren ateak barriro zabaldu zirane-  
tik hiru urte pasauta, urteurrena  
ospatuteko hainbat ekintza  
antolatu ditue maiatzaren 9 eta  
10erako.

Gaztetxea martxan 2007. ur-  
tean ipini bazan be, 2015ean  
erabilera barik gelditu zan erai-  
kina. Baina belaunaldi barriek,  
pandemia ostean kaleak barriro  
hartzeako olatua aprobetxauta,  
2022an barriro ateak zabaldu eta  
ordutik ekintza ugari antolatuten  
dabiz. III. urteurrenara begira, au-  
zolana deitu dabe hilaren 8rako,  
18:00etatik aurrera gaztetxea  
jairako prestatuteko "atzenengo  
ikutuak" emoteko.

Dana prest egonda, hilaren 9an,  
barikua, herrira urtengo da gaz-  
tetxea, atzen urteetan egindako  
ekintza kultural, berbaldi, tailer,  
aizola, ekitaldi eta abarren kar-  
tel eta argazkien erakusketeagaz.  
Holan, hiru urte honeetako his-  
toria batuten dauan argazki eta  
kartelen bildumea herrian zehar  
egongo da sakabanatuta irudi  
handietan eta asanbladatik au-  
rreratu dabenez, mapa baten la-  
guntzeagaz, ibilbidetxo historikoa  
osotuko dabe. Egun osoan zehar  
egongo da ikusgai erakusketea.



15:00etan, bertso-bazkaria egin-  
go da Enara Gallastegi, Alaia Irur-  
tia eta Iradi Barrenetxea arratiar  
bertsolari gazteakaz. Txartelak  
Hagiña tabernan egongo dira sal-  
gai aurreko egunetan.  
Arrastian zehar herrian ze-  
har jolasakaz girotutako poteo  
musikatua egin ostean, jentea  
barriro bueltauko da gaztetxera,  
22:00etatik aurrera egingo diran  
kontzertuakaz gozatuteko. Lami-  
netxeko oholta gainean andrak  
izango dira maiatzaren 10ean  
ugazabandre, izan be, andrakaz  
bakarrik osotutako hiru talde kon-  
bidau ditue: Vinagre de Moderna  
arratiarrak, Kuter Busturialdekoak  
eta Matxinada DJ zeberioztarrak.

DUNBA

Lehiakortasuna versus kooperazinoa

Arteako eskolea

Aurtengo ikasturtean Arteako es-  
kolan ekimen barri bat jarri dogu  
martxan, "Umeen zentzune,  
etxean entzune" dalakoa. Danori  
etorriko jatzuen burura, "eta hau,  
zer dala-ta?". Ba, eskolan lan-  
tzean doguzan balore, ekimen  
eta bizikidetzak positiboko zertze-  
ladak etxeakaz alkarbanatzeko  
helburuagaz sortutako ekimena  
da.

Honen barruan, zezeilean gure  
ikastetxera Dimako Luis Prieto ki-  
rolari apartari egin geuntsan kon-  
bitea, eta berak onartu. Kirolean  
zein bizitzan jagon behar diran  
jarkerak, alkarrerik laguntzearen  
garrantzia, urkoaganako errespe-  
tua edo taldearen beharra izan  
genduzan berbabide eta Luisek  
bere ibilbidean garrantzizkotzat jo  
dauzan jokaera eta baloreak be  
azaldu euskuzan. Lerro honeek



erabili gura doguz bere jarduna-  
gaitik Luis eskertzeko. Oso gus-  
tura egon ginan zugaz eta asko  
ikasi genduan.  
Ildo beretik, eskolan patioko  
klima hobetze aldera dekalogo  
bat idatziko dogu oin artean lan-  
dutakoak oinarri hartuta, hatara  
gure eskolako giroa eta hain ga-  
rantzitsu jotzen dogun bizikidetzak  
positiboa garatzeko asmoz.  
Eskerrik asko Luis!

AGENDEA

MAIATZAK 2  
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Karpoko jaiak. 20:00etan, Etxebarria aita-semeakaz kalejireia.

ARTEA

HAPOfari alegazinoak egiteko epea maiatzaren 31ra arte Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskaraldian ahobizi edo belarriprest jarduteko norbanakoen izen-emotea zabalik [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunean hilaren 4ra arte..

BEDIA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era. Arreteak: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

HAPOf erakusketea eta herritarren buzoia urri lehenengoaren 30era arte.

2025-2026 denporaldirako izen-emotea zabalik Arratia futbol taldeak maiatzaren 30era arte. Futbol eskolea (2018, 2019 eta 2020), Benjamin, Alebin, Infantil, Kadete eta Jubenil kategorietan. Klubeko bulegora jo ordutegi honetan: astelehen eta martitzenetan 10:00etatik 12:00etara eta eguazten, eguen eta barikuetan 16:00etatik 18:00etara edo [cdarratia@cdarratia.com](mailto:cdarratia@cdarratia.com) helbidera mezua bialdu. Informazino gehiago gura izan ezker 747 452 538 edo 94 631 57 04 telefonoetara jo.

Bagilaren 21ean jokatu dan Urbihoools Koparako izen-emotea zabalik maiatzaren 23ra arte. 16 urte baino gehiago euki behar dira eta taldeak mistoak izan ahal dira. Izena emoteko mezu bat bialdu behar da Instagram-eko [@urbihoools](https://www.instagram.com/urbihoools) kontura.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

Santa Kurtzeko jaiak. 11:00etan, mendi urtekerea; 18:30ean, txupinazoa eta buruhandiak; 18:45ean, Tortilla Txapelketarako izen-emotea; 20:00etan,

tortillen aurkezpenak; 20:15ean, jantza-plaza; 21:00etan, Tortilla Txapelketako sariketea; 22:00etan, suzko zezena.

MAIATZAK 3  
AREATZA

Karpoko jaiak. Goizean Paella eta Gisadu Lehiaketea. 10:00etatik 13:30era, Artisau, Ganadu eta Ekoizle Azokea; 12:30ean, Areatzako Bandaren *Doinuak jairik jai* kalejireia; 14:00etan, Paella eta Gisadu Lehiaketearen aurkezpena; 15:00etan, bazkari herrikoa; 17:00etan, plastikuzko ahate lasterketea errekan; 18:30ean, giza proben desafioa; 20:00etan, DJ TRACK-A. **IGORRE** 00:00etan, Old Glasses taldearen kontzertua, Troka tabernan.

LEMOA

Arantzeko jaiak. 12:00etan, txupinazoa iturrian; 15:00etan, bazkaria; 17:00etan, Mus Txapelketea (izen-emotea 16:30ean); arrastian, karretilla krono lasterketea; 20:00etan, Tortilla Txapelketea; iluntzean, Merhezi taldea.

ZEBERIO

Santa Kurtzeko jaiak. 12:00etan, mezea eta gero, mokadutxoa; 13:30ean, herri kirolak Jasoka taldearen eskutik; 15:00etan, bazkaria etxetik ekarritakoagaz (ura, ardaoa eta ogia jai batzordearen esku); 17:00etan, Izare poesia; 18:00etan, olgeta eta txapelketak; 20:00etan, txokolatea; 22:30ean, kontzertuak: Suger, Foterie, Katilu eta Matxinada.

MAIATZAK 4  
IGORRE

19:00etan, *Neura, una comedia neurótica-festiva* antzezlanea, Kultur Etxean.

ZEBERIO

Santa Kurtzeko jaiak. 12:00etan, desmuntatzea eta gero konbidaduen bazkaria.

MAIATZAK 5  
AREATZA

17:30ean, oroimenaren gaineko ikastaroa jubiladuen egoitzan. Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta.

DIMA

Hilaren 15era arte, Dimako Udalekuetarako izen-emotea udaletxean. Udalekuak: Udaleku Irekiak 2020 eta 2013 bitartean jaiotakoentzat, bagilaren 30etik garagarrirearen 4ra arte; Udaleku Itxiak, ibiltariak, 2020 eta 2008 bitartean



Yorgos Lanthimosen *Langosta*  
Igorreko Zineklubean

Hilaren 14an, 20:00etan, Yorgos Lanthimos zuzendari greziarra-ren *Langosta* (2015) komedia baltza proiektauko da Lasarte Aretoan. Lanthimosek azalduten dauanez, film honen idea "personek maitasun-harreman bat izateko etenbako beharra zelan sentiduten dauanaren behaketatik" dator eta gizarte mailan "inogaz egotea ez lortzeak dakarren porrota" da idea nagusia.

Idea horretatik abiatuta, filmak mundu distopiko batean girotutako maitasun istorio ez-konbenzional bat kontetan dau. Mundu honetan, ezkonbakoak atxilotu eta 45 eguneko epean bikotekidea aurkitu behar dauan leku batera bidaltzen ditue. Collin Farrel eta Racchel Weisz aktoreak dira protagonistak.

jaiotakoentzat, garagarrirearen 7tik 11ra arte; Gazte Abentura 2012 eta 2008 bitartean jaiotakoentzat, garagarrirearen 14tik 18ra izango dira.

LEMOA

18:30ean, *Momotxorroak: Kaos baten istorioa* dokumental proiektazinoa eta solasaldia, Kotxepin Kultur Etxean.

MAIATZAK 6  
DIMA

18:00etan, Klima eta energia plana. 4. saioa. Abaroa Aretoan.

IGORRE

17:00etan, *Dementia ulertuz, hobeto zaintzeko* ikastaroaren 1. saioa Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta, Kultur Etxean. Izen-emotea maiatzaren 2a baino lehen 94 631 17 17 telefonoan.

LEMOA

18:30ean, Laburbira Euskarazko Film Laburren XXII. Zirkuitua, Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Arratiako Udalen Mankomunitateko kamioia zabor handiak batzera (etxetik gauzak aterateko maiatzaren 5a baino lehenago izena emon udaletxean).

MAIATZAK 7  
AREATZA

18:00etan, *Etxeko faktura elektrikoa ulertzeko tailerra* udaletxean. Izena emoteko 747 490 491 telefonora deitu. Etxeko argiaren faktura bat eroan.

ARTEA

18:00etan, *Afrika: utopiak ehuntzen-Emakumeak eta disidentziak* berbalidia Ekuatore Ginea, Kenia eta Kongoko alkarte desbardineta andrakaz, Basoa Defendatzaileen Etxean. Izen-emotea [euskalherri@pbi-ee.org](mailto:euskalherri@pbi-ee.org) helbidean.

19:15ean, Euskaraldiko Herri Batzordea Kultur Etxean.

IGORRE

17:00etan, bisita gidatua euskeraz HAPOfren erakusketan, Kultur Etxean.

18:30ean, HAPOfren gaineko berbaldi eta tailerra, Kultur Etxean.

LEMOA

19:00etan, *Odisea 1937* erakusketearen inaugurazinoa eta berbalidia, Kotxepin Kultur Etxean. Hilaren 16ra arte egongo da erakusketea.

MAIATZAK 8  
AREATZA

18:00etan, urteurrenerako jaira begirako auzolana Laminetxe Gaztetxean.

ARTEA

09:00etan, jubiladu eta pensionisten urtekerea Lizarrara. Mikel Deuna alkarteak antolatuta.

IGORRE

18:30ean, *Etiketa Berdea. Mendiko proba*

*etikoen aldeko manifestu bat* berbaldia Axular Herriko Tabernan Oihana Azkorbebeitia (korrikalaria), Iñigo Gonzalez (Lemoatx Trail), Aritz Azkorbebeitia (Ubidestroia) eta Gotzon Idirinegaz (Etiketa Berdea).

LEMOA

18:00etan eta 19:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertuak, Kotxepin Kultur Etxean.

MAIATZAK 9  
ARANTZAZU

19:00etan, *Musika herrikoa, nota ahaztuak* kontzertu eta berbaldia Juan Mari Beltran eta Ander Barrenetxearen eskutik, San Pedro eleizan.

AREATZA

Egun osoan zehar, Laminetxe Gaztetxearen atzen urteetako argazki eta kartelen erakusketea herritik zehar.

ARTEA

Irakurleen Txokoa. 19:00etan, Marjane Satrapiren *Persepolis* liburuaren lanketea Alaine Agirrek bideratuta, Kultur Etxean.

IGORRE

16:30etik 21:00etara, Euskaraldirako txapen banaketa postu ibiltaria (eskoletan hasi, Txaparro, Ezkiña eta Kukuma alboan amaitu).

21:00etan, Very Txarrak taldearen kontzertua Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

17:30ean, Gaztedi Lemoako Udalaren Gazteriaren Plan Estrategikorako lehenengo batzarra Kotxepinen. Izen-emotea [labur.eus/lemoagazteplana](http://labur.eus/lemoagazteplana) helbidean.

19:30ean, Txoborro eta Tor magoakaz poteoa, Txoane tabernatik hasita.

MAIATZAK 10  
AREATZA

Laminetxe Gaztetxearen III. urteurrena. 12:30ean, Arratiako Euskera Taldearen aurkezpena eta *Ze aisialdi mota dekogu Arratien?* berbaldia; 15:00etan, bertso-bazkaria Enara Gallastegi, Aiala Irurtia eta Iradi Barrenetxeagaz; 18:30ean, poteo musikatua; 22:00etan, kontzertuak: Vinagre de Moderna, Kuter eta Matxinada.

LEMOA

Belaunaldien Arteko Eguna, eskoletan. 11:00etan, ginkanea; 12:30ean, hamaietakoak; 13:00etan, euskal jantzak Durundi Barriren eskutik; 13:30ean, poteoa eta Igel Txapelketea; 14:30ean, bazkaria eta bingoa; 18:00etan, txokolatea eta erromeria.

DIMA

16:30etik aurrera, Arratiako Komarkala Bola Txapelketako tiraldia Oban.

16:15etik 16:45era, albokariak; 17:00etan, Gazte Barri Dantza Taldeak antolatutako Lehenagoko Erromeria, Bargondia auzoan. Jantzak, taloak eta edana egongo dira eta baserritarrez jantzita joan behar da. 16:00etatik 17:00etara igoteko eta 19:30etik 21:30era bajatuteko autobus zerbitzua egongo da eskoletatik.

MAIATZAK 11  
ARTEA

11:30etik 15:00etara, truke eta bigarren eskuko azokea plazan; 13:30ean, Tributo Kortatu eta Aizu taldeak Alcorcon eta Vallecasetik. Azokan izena maiatzaren 9a baino lehen emon 652 749 736 telefonoan. Herriko Bentak antolatuta.

18:00etan, Jai Batzordea Kultur Etxean.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Misión Panda en África;*

19:30ean, *Tierra de nadie* Lasarte Aretoan.

12:30etik 13:30era, Euskaraldirako txapen banaketea Urbietara eta Kukuma inguruan.

LEMOA

10:00etan, Orientazino Proba Herrikoia, 1936ko Gudarien Parketik.

ZEANURI

09:00etan, Zeanuriko Erroten XVIII. Ibilaldia. Izen-emotea 08:30etik aurrera plazan.

MAIATZAK 12  
AREATZA

17:30ean, oroimenaren gaineko ikastaroa jubiladuen egoitzan. Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta.

DIMA

19:00etan, Dimako Udalekuetarako familien batzarra Abaroan.

ZEBERIO

18:00etan, Aurretiazko Borondateen Dokumentuari buruzko berbaldi informatiboa Hogarrean. Izen-emotea 94 648 10 79 telefonoan (inskripzino ordenaren arabera plaza mugatuak).

MAIATZAK 13  
IGORRE

17:00etan, *Dementia ulertuz, hobeto zaintzeko* ikastaroaren 2. saioa Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta, Kultur Etxean. Izen-emotea maiatzaren 2a baino lehen 94 631 17 17 telefonoan.

MAIATZAK 15  
AREATZA

09:00etatik 19:30era, urtekerea Gernikara Uparan jubiladuen alkarteak antolatuta. Bazkideentzako prezioa 35 euro, besteentzako 45 euro. Izen-emotea egoitzan maiatzaren 5 eta 6an, 18:00etatik 19:30era.

ARTEA

19:00etan, Euskaraldiaren hasikerea dala-ta argazkia ateratea udaletxean.

IGORRE

17:00etan, bisita gidatua gazteleraz HAPOfren erakusketan, Kultur Etxean.

18:30ean, Generoa HAPOn berbaldi eta tailerra, Kultur Etxean.

18:30ean, arrakada tailerra Axular Herriko Tabernan. Izen-emotea hilaren 12ra arte, 10 euro.

19:30ean, herriko trikitilariak Euskaraldiari ondoetorria, Gau Loratik hasita.

ZEANURI

San Isidro. 11:30ean, umeentzako jolasak; 12:00etan, meza nagusia San Isidron: 13:00etan, Arrikibar jantza taldearen emonaldia herriko txistulariakaz; 18:00etan, idi-proben erakustaldia.

MAIATZAK 16  
IGORRE

16:00etatik 21:00etara, Euskaraldiari buruzko ihes gela, Lasarte parkean.

LEMOA

17:30ean, Gaztedi Lemoako Udalaren Gazteriaren Plan Estrategikorako bigarren batzarra Kotxepinen. Izen-emotea [labur.eus/lemoagazteplana](http://labur.eus/lemoagazteplana) helbidean.

UBIDE

Podologia zerbitzua. Izen-emotea udaletxean.

ZEANURI

19:00etan, XLVI. BBK Abesbatzen kontzertuak, Andra Mari eleizan. Zeanuriko abesbatza, Sestaoko Orfeoia eta Uri-osteko Orfeoia.

KOMIKIA

Kailo Ren

...eta horregaitik Putinek ezin dau Trump derigortu...  
 ... Ukranian in behar dauena ez da... Txinako gobernue... bla bla...

...tefiola super kaltegarrie da, ...mikrobiota... janari ultraprozesatuek... bla bla...

...ez erosi kotxe elektrikorik... lur arraroak... kontaminazioa, aldaketa klimatiko... bla bla

Pedro Sanchezek badaki... Sumar eta Podemos... bueno, eta VOXek bebai... inflazioa...gobemue, bla bla

Ez dakit zuen bardine pasetan dabiltzuen baina aspaldien pertsonan ordeztare sozialeko algoritmo bategaz berba iten dotela irudituten jata.

IRAGARKI LABURRAK

**DANERIK BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA**  
 Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

**LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA**  
 Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

**LOGELA BILA**  
 Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gixienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

**KAMARA FRIGORIFIKOA SALGAI**  
 Neurriak: 2 m luze, 1,40 m zabal eta 2,20 m altuera. 2.000 euro. Interesdunek deitu edo mezua bialdu 689 119 930 telefonora.

**SALTZEAN DODAZ**  
 Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192

telefonora.

**EMOTEN DOT**  
 56 m² lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

**LANA IRAKASLE BILA**  
 Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusn irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

**IRAKASLE BILA**  
 LH 5. mailako ikasle bateri ingeeseko klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

**BEHARGINA BEHAR DOGU**  
 Interna moduan lan egiteko persona bat behar dogu, Soziosanitario tituluduna. Interesdunek deitu 685 704 440 edo 635 207 386 telefonora.

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.**

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1**  
**Areatzako Udalak emondako Dolu bat eta dolu bi** liburuaren ale bana.

**2**  
**Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Orozkoko sailkapen faseko saiorako bina sarrera.**

Aitor Iglesias (Basauri)      Nekane Intxaurtza (Dima)  
 Oskar Gorostiaga (Arantzazu)      Yazmina Beobide (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %

PEDRO AUTOZERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre Tel. 94 631 15 26

KIRRU ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER

SABINO ARANA 38 IGORRE

Tlf. 94 631 92 00

GORBEIALDE  
 LANDA GARAPENA  
 ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

Ipini zure iragarkia Begitun  
 649 979 115  
 inigoirua@begitu.eus

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blatza dago jabetza Blatza dago proiektu

-Salmentan zein alokatuan  
 Lurak (erakileko, landak, basak...)  
 Etxebizitzak (osak, berenak, etxak...)  
 Garajeak  
 Lokai komertzialak  
 Publikoak...  
 -Solentzioak

-Erosin berriak erakitzeko  
 Erreforma  
 Arkitektura-proiektuak  
 -Borne diseinua  
 -CEE eta IIE-ak  
 -Hirigintza aholkularitza  
 -Negotzioak irekitzeko kudeaketa

Garapenak Agirre 28, bilera - Agirre  
 Agirre 28, 48143 1º - 48143 2º 31  
 94 631 31 81 - 425 16 31 31  
 94 631 31 31 - 425 16 31 31  
 94 631 31 31 - 425 16 31 31  
 94 631 31 31 - 425 16 31 31

Kili~Kili

Arropa eta Punturak

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
 Tel: 94 473 43 81

BIXER TABERNA

Boko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a Tel: 94-673-70-87  
 Igorre 48140 Bizkaia Tel: 609-79-40-54

Olaetxe OPTICA CENTRAL

Graduatzioko Ikusmen terapia Ikusmen gibusua Begiko tentsioa Lentillen adaptazioa Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Landak - Kontularitza  
 Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
 Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
 E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



AUTOMATIZAZIOKO ETA  
ROBOTIKA INDUSTRIALEKO  
GOI MAILAKO GRADUA



FABRIKAZIO MEKANIKOKO  
PRODUKZIOA PROGRAMATZEKO  
GOI MAILAKO GRADUA



GIZARTERATZEKO GOI  
MAILAKO GRADUA



OINARRIZKO LH  
ELEMENTU METALIKOEN  
FABRIKAZIOA



OINARRIZKO LH INSTALAZIO  
ELEKTROTEKNIKOAK ETA  
MEKANIKOAK



MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN  
PERTSONEI ARRETA EMATEKO  
ERDI MAILAKO GRADUA



FABRIKAZIO MEKANIKOKO  
DISEINUKO GOI MAILAKO  
GRADUA



MEKANIZAZIOKO ERDI  
MAILAKO GRADUA



INSTALAZIO ELEKTRIKO  
ETA AUTOMATIKOKO ERDI  
MAILAKO GRADUA



**ZULAIBAR**

ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

*Etorkizunerako berrua*

www.zulaibar.net ☎ 94 673 91 16 AURREMATRIKULA: Maiatzak 5-23